

56

500 pezeta / 20 libera • 2001eko MARTXOA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik nasi

ELKARRIZKETAK: F. ROBLETO  
ETA F. CARDENAL • HIZKUNTZEN  
PSIKOPEDAGOGIA LIZENTZIATU-  
RA • BERRIAK: UDAKO TOPAKE-  
TAK... • TEORIAK: PAULO FREIRE

GATA

Nikaragua

beste errealitate bat





gaia

## NIKARAGUA

Gurearekiko desberdina den hezkuntza egoera dute han, egoera soziala bezalaxe



elkarrizketak

## F. ROBLETO eta F. CARDENAL

Gaur egun Hezkuntza ministroa eta sadinisten garaiko Hezkuntza ministroa

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

## NIKARAGUA

beste errealitate bat

Nikaraguako hezkuntza, egoera soziala...

20 elkarrizketak

## FERNANDO ROBLETO

eta

## FERNANDO CARDENAL

28 esperientzia

## Hizkuntzen psikopedagogia

Mondragon Unibertsitateko lizentziatura berria

32 ekarpena

## Ramon Flecha

Ilkaskuntza komunitateak

35 berriak

II. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak, Korrika 12, Gipuzkoako Haur Kantarien Txapelketa, Mondragon Unibertsitatearen 25. urteurrena...

36 argitalpenak

39 teoriak

## Paulo Freire

Leire Tejados

Argitaratzailea: **XANGORIN** Zirkuitu Ibilbidea, 2. Pabilioia. 20160 IASARIE-ORTA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.15.45 Fax: 943/ 36.10.48. Posta Elektronikoa: [hikhasi@antza.com](mailto:hikhasi@antza.com); Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airna Azpiroz Erredakzio batzordea: Itziar Barriola, Mikel Estonka, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Inanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Begoa Bilbao, Marian Bilbao, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goia, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaola eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik maketazio, aurreinpresioa: Xangorin Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Nikaraguako haurrek (hik hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2001/III/8. Kopurua: 3.500 ale  
hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.  
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



Haurrak, pailazoak eta pertsonaia ezagunak protagonista.



22 euskal jolas

# Zatoz jolastera!



Eskaintza  
berezia!

Norbanako harpidedunentzat  
~~7.500 pta.~~ 1.600 pta.  
Ikastetxeentzat, 10 bidetik gora  
eskatuz gero, bakoitza 2.000 pta.

# editoriala martxoa

## Euskara Nafarroan, zalditik astora eta astotik lurrera



Nafarroan euskararen erabilera arautzen duen dekretua ezarri du Nafarroako Gobernuak. Ez du euskararen normalizazioa laguntzen.

Ikustekoa Nafarroan sortu duten iskanbila! Aurrerantzean, herritarrak ez du bermerik Administrazioarekin harremanak euskaraz izateko. Administrazioaren barruan, euskara bigarren mailako hizkuntza bihurtzen da atzerriko edozein hizkuntzak duen balio eta estimu berberarekin.

Dekretua eraginkorra izateko sortu dute. Ezohiko bizkortasunez euskararen edozein arrasto ezabatzeari ekin diote dekretu horren bidez. Eta bat-batean guztia zilegia bihurtu da euren asmoetarako bitarteko egokia bada behintzat. Txundituta bide-seinaleak ordezkatzeko ikusi ditugu, herrien izenak ezabatzen eta gatzelerazko izenak ordezkatzeko, Eusko Ikaskuntza eta EUEri laguntzak kentzen... lehen-tasun guztiak euskararen erauzketan ipini dituzte.

Euskararen aurkako gurutzada ero horren hurrengo ekimena zein izango den ez dakigu. Pentsatzen hasiak gara Sanzek oraindik ez duela jakin Europan hizkuntza gutxituen urte europarra ospatzen ari direla eta Europako adituek hizkuntza gutxitu horiek sustatzeko moduak aztertze eta bideratzeko ahaleginean direla. Behar bada gerta liteke Sanzen gobernuak ez jakitea lingua navarrorum-en gatzelerazko baliokidea zein den, edo behar bada zein hizkuntza den gisa horretan izendatzen dena. Behar bada ez dira jabetu misto hitzaren esanahiaz.

Euskara Europako hizkuntza zaharretakoa izanik, eta hau ez da gure baratzeko baratxuria, aditu eta jende askoren begikotasuna sortzen du Europan eta mundu osoan. Eta

non izango ditu arerio erasokorrenak euskarak, lingua navarrorumek, non eta Nafarroan! Benetan, ezin dugu ulertu.

Gure aho txiki honekin, ausardiarekin, esango genieke Sanz eta bere gobernuak ez diezaiotela ez entzunarena egin nafar gehienek eskatzen ari direnari: dekretua bertan behar utz dezatela Europa osoan hizkuntza aniztasunaren alde zabaltzen ari den mezuekin bat eginez. Eta Sanz jauna, irakasle bihotzez diogu, arren egon zintezke zure erreinukideen gehiengoak bi hizkuntzen jabe izan nahi dutelako. Bi bat baino gehiago da leku guztietan, eta Nafarroan ere bai.

Hizkuntza urtea ospatzen ari garen honetan ez dezagula euskararen, lingua navarrorum-en, genozidioaz hitz egin behar izan!

# kronika

Euskal sistema nazionalaren aldeko "eztabaida gune irekia" burutu zen Gasteizen otsailaren 21ean. Ekitaldi publiko horretan irakaskuntzako nahiz herri ekimeneko partaideak bildu ziren. Bertan adierazi zen bezala, euskarak azkenaldian jasandako "erasoek" mugiarazi dituzte irakaskuntzako hainbat langile, guraso, ikasle eta beste alorretako pertsonak talde hau osatzera. Bozeramaileek azaldu zuten, ez da erakundeen batuketa hutsa izango, eztabaida askea pizteko tresna baizik, eta beren helburu nagusia, epe laburreko behintzat, "indarrak bildu eta herritarrentzako erreferente bihurtzea" izango da. Bultzatzaileek honoko lau alderdi hartu zituzten gogoan: Euskal Herriak euskal hezkuntza egituraketa propiorik ez izateak sistema espainiarra nahiz frantziarra nagusitzea dakar, indarrean dagoenak ez du bermatzen euskararen etorkizuna, curriculum propioarekin jokatzeak beharra eta hezkuntzan legedia propioaz baliatzeko premia. Aurkezpenean zehaztu zen modura, taldea Organu Iraunkorra izango da.



## Euskal Editoreen Elkar- teak euskarazko ikaslibu- ruak babesteko eskatu du

Euskal Editoreen Elkar-teak gogor salatu ditu azken hilabeteotan Nafarroa eta Espainiako gobernuek ikasliburuaren inguruan euskarazko hezkuntzari "egindako erasoak". Eusko Jaurlaritzak "erasoei" emandako erantzuna ez dela nahikoa izan adierazi zuten. Halaber, aurrera begira, euskarazko ikas-materialak eta euskal hezkuntza sistema defendatzeko deia egin zien administrazioei eta Jaurlaritzari, eta irakaskuntzaren eta kultur-gintzaren alorreko elkartei, "erasoaren neurriak kultur-gintzan ari garen guztion lankidetzara eskatzen baitu".

Jorge Gimenez, elkartearen lehendakariaren esanetan, "euskal kultur-

gintza eta hezkuntza susmagarri bilakatzea helburu duen jokabide iraingarri ugari ibili da azken bolada honetan". Horren aurrean, Gimenezek aipatzen du jokabide horietan guzti eta asmo politikoez gain, ekonomikoak ere ikusten direla, azken batean, beren helburua euskal editorialaren industria zikindu eta zapuztea delarik.

Euskal Editoreen Elkarteko lehendakariak esandakoaren arabera, "herri orok du modu demokratikoan aukeratzeko duen hezkuntza sistema eratzeko eta garatzeko eskubidea, eta hein berean, sistema horretan erabiliko diren ikas-materialak ekoizteko eta erabiltzeko ahalmena".

Ildo horretan, editoreen elkarteak ez ditu onartzen testu horiek kontrolatzeko hainbat administrazioetatik jartzeko ari diren baldintzak, eta eraso hauen aurrean, prest daude baliatu beharreko ekinbide juridikoak aurrera eramateko, bai hemen bertakoak eta baita nazioartekoak ere. Hala ere, badakite ez dela erraza bide juridikoan sartzea, orain arte egin diren adierazpen asko iritzi moduan eman baitira. Dena dela, horretan jarraituko dute, euskal ikasliburuak buru belarri defendatzeko asmoz.

# dira irakaskuntzako taldeen artean

Behin ere ez da erraza izan Nazio zapaldu bat  
zutik jartzen hastea

Ramon Labaien



IAK Udaberri intsumitua ri ekingio

Otsailetik maiatzera bitartean "Udaberri intsumitua" burutuko dute Euskal Herriko ikasleek Ikasle Abertzalea-ek bultzata. Euskalduntzearen borrokaren ildoan kokatzen den mugari berria da "Udaberri intsumitua".

Orain arteko lanari bultzada eta jarraipena emateko ekimen berri hau hiru hilabetetan zehar luzatuko da, eta Euskal Herri osoan burutuko diren mobilizazio dezentralizatuek osatuko dute. Ikastetxeetan, herrietan, eskualdeetan eta maila nazionalen burutuko dira ekintzak, bai Lanbide Heziketan, bai unibertsitatean eta baita beste arloetan ere. Besteak beste mobilizazio planteak, grebak, itxialdiak, hi-

tzaldiak, aldarrikapen taulak, Korrikaren inguruko ekimenak, erakusketak, kultur asteak, kontzientzia eragozpen kanpaina, atxikimendu bilketak eta abar burutuko dira eskualdez eskualde. Hiru hilabeteko kanpaina honi amaiera emateko mobilizazio aste nazionala burutuko da maiatzaren "Euskalduntzearen alde, ikasleok intsumisioa!" lelopean.

"Udaberri intsumitua"ren helburua euskal ikasleen hizkuntza eta kultur eskubideak errespetarazteko intsumisio dinamika lau haizetara zabaltzea da. Irakaskuntza hizkuntzaz eta edukiz euskalduntzeko daramaten borrokari bultzada berria eman nahi zaio.

Iako bozeramaileek azaldu dutenez, "intsumisioa beharrezko jarrera da gaurko hezkuntza sistemari aurre eginez guk IAtik bultzatzen dugun euskal eskola publiko nazional hori sortzeko. Horregatik, hurrengo pausoa hezkuntza sistema propioa nahi duten horiek ekintza intsumisioak aurrera eramatea izango da". Horrekin guztiarekin, IAK lortu nahi duena da euskaraz ikasi ahal izatea. Era berean, unibertsitate nahiz lanbide heziketako zentroetan euskal curriculum a egotea eskatzen dute.

Seaskak integrazio kanpaina berria abiatu du. Aurrera eramango duen ekimenak adimen urriko haurrei ikastola guztietako ateak irekitzea du helburu. Ladix Arrosagarai, Seaskako integrazio batzordeko kideak dioen bezala, "ez da desberdintasunik mantendu behar ikasleen artean". Lelo hori aurrean izanik, kanpainaren helburu orokorra "eskola integratzailea eraikitzea" izango da. Seaskako batzordeak jakinarazi nahi du, ahalmen urriko haurrak dituzten gurasoek aukera badutela beraien haurrak Ikastolan sartzeko. Aldi berean, argi utzi nahi izan dute, haur horiek besteekiko desberdinak direla soilik, eta ez ezinduak. Seaskaren hurrengo pausoa hitz hauek guztiak ekintzara pasatzea izango da, horretarako kanpaina diru iturri garrantzitsutzat jotzen dutelarik. Bestalde, Seaskak ahalmen urriko haur horiek hezitzailearen laguntza beharrezkoa dutela aldarrikatzen du. Frantziako hezkuntza sistemak laguntzaile postuak ezartzen ditu, baina hezitzaileen funtzioa laguntzaile horiena baino urrunago do, hezitzaileek sostengu pedagogikoa ere ziurtatzen baitute. Ahalmen urriko haurra ikastolara ekartzearen helburua ez da ikaskuntza jasotzea soilik, baita lagunak egitea ere. Eskoratzek haurrari gizartean integratzea erraztu behar lioke.


# GATA

## Nikaragua

beste errealitate bat







HIK HASIk Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldearekin batera Nikaragura bidaiatu zuen urtarrilaren bukaeran. HONEK GKEren eskutik pailazoez hango haurrei eskaini zizkien saiokak, eta HIK HASIk Nikaraguako irakaskuntzaren egoera ezagutzearaz gain, hango hainbat hezkuntza elkarre eta taldeetako kiderekin egoteko aukera izan zuen. Gure egoeratik urrun aurkitzen den errealitatearekin egin genuen topo. Hemengo eta hango hezkuntza egoera guztiz ezberdinak dira, eta hori egiaztatzeko aukera emango dizuzete HIK HASI aldizkariaren zenbaki honerek.

## Nikaraguako irakaskuntza

Nikaragua Ertamerikako bost herrialdeetako bat da. Iparraldean Honduras du eta hegoaldean Costa Rica. 4 milioi biztanle ditu: %60 inguru hiritarra eta beste %40 inguru landatarra. Biztanleria horren erdia baino gehiago haurrak dira, hots, bi milioi eta erdi inguru eta horietatik milioi bat eskolatu gabe dago. Hau da, eskolara joateko adinean dauden haurren erdia ez da eskolara joaten.

Ikasturtea otsailean hasi eta abenduan bukatzen dute. Tartean Aste Santuko oporrak izaten dituzte eta uztailean beste hamabost egun. Aurtengo ikasturtean 1.347.000 haur eskolatu dira; 179.000 eskolaurrean, 848.000 Lehen Hezkuntzan eta 320.000 Bigarren Hezkuntzan. Baina beste 600.000 joan gabe gelditu dira. Horiei unibertsitatara sartu gabe gelditu diren beste 500.000 ikasle gehitu behar zaizkie. Datu horiek kontuan

hartuta, gaur egun Nikaraguako eskolatzetasa %7,4koa da. Eskolatzetadinean dagoen haur kopurua %8,85igo den bitartean, matrikulazioa %7,64 igo da.

Okerrena zera da: Lehen Hezkuntzako haurren %45a ez dela Bigarren Hezkuntzara iristen. Horrez gain, urtero 130.000 haurrek baino gehiagok uzten diote eskolara joateari. Ikasketak hasten dituen %25a bakarrik iristen da 6. mailara. Eskola desertzioa izugarria da lanera joaten direlako, ekonomikoki familiarri lagundu egin behar diotelako eta irakaskuntzaren doakotasuna ez delako hala praktikan.

Datu ofizialen arabera, 10 eta 19 urte bitarteko 160.000 haurrek egiten dute lan hiri eta herri guneetan. Aitzitik, datu extraofizialei jaramon eginez gero, kopuru hori 300.000ra igotzen da. Horietatik %33,7k 10 eta 14 urte



# G

bitarte ditu. Managuako merkatal gu-  
neetan, esaterako, lan baztertuak egi-  
ten dituzten haurren kopurua %200 i-  
go da, batez beste egunero 7tik 12 or-  
dura bitarte lan egiten dutelarik. Ego-  
era honetan haur horiek jasaten di-  
tuzten tratu txarrak oso ohikoak dira.

### Ikastetxe motak

Nikaraguan guztira 6.140 ikaste-  
txe daude eta 30.000 irakasle dabilta  
berauean. Ikastetxe gehienak es-  
tuarenak dira, baina pribatuak ere  
badaude. Estatuko eskolen artean,  
ordea, batzuk autonomoak dira. Hau-  
etan eskola kontseiluak zeregin  
eta parte-hartze handiagoa du. Hau  
da, Hezkuntza Ministeritzak legeak e-  
ta arauak jartzen ditu, baina hortik au-  
rrerakoa gurasoen, irakasleen eta i-  
kasleen esku gelditzen da. Esaterako,  
Hezkuntza Ministeritzatik dirua jaso-  
tzen dute, eta gero beraiek dira diru  
hori kudeatzen dutenak. Eredu hone-  
kin Hezkuntza Ministeritzak eskola  
kontseiluaren parte-hartzea bultza-  
tzea du helburu, bere erabakiak ahal  
dituen gehien murriztuz eta ikastetxe  
bakoitzak bere erabakiak eta aldake-  
tak egiteko malgutasuna ziurtatuz.

Dena dela, denak ez daude ados  
eredu honekin, askotan erabakiak  
zuzendarien esku gelditzen direlako,  
eta zenbait kasutan diru publikoa bi-  
degabe erabili izan den kasuak gerta-  
tu dira. Hezkuntza Ministeritzak ikus-  
kariak eta teknikoak bidaltzen ditu  
eskolaz eskola horrelako egoerak e-  
kiditeko, baina benetako kontrola  
gurasoen eskuetan dagoela uste du,  
beraiek direla horrelako egoerak sa-  
latu eta moztu behar dituztenak esko-  
la kontseiluaren bitartez.

Ikastetxeetan normalean hiru  
txanda egoten dira, hots, haurrak goi-  
zez, arratsalde edota gauez joaten  
dira eskolara. Gelako ratioa 45 ikasle-  
koa da, baina sarritan 50 edo 60 haur  
biltzen dira gela bakar batean.

### Irakaskuntza dohainik da, baina...

Legeak dioenari kasu eginez, ira-  
kaskuntza dohainik da maila guztie-

tan; hasi eskolaurretik eta unibertsita-  
tera arte. Eskolaurrean eta Lehen  
Hezkuntza ez dago ezer ordaindu be-  
harrik, eta Bigarren Hezkuntzan ere  
ez. Dena dela, azken kasu honetan i-  
kastetxeari borondatezko laguntza e-  
man diezaiekete gurasoek, baina bo-  
rondatezkoa.

Errealitateak, ordea, legeak dioe-  
na hainbat kasutan hautsi izan dela e-  
rakusten du. Gurasoek matrikula or-  
daintzen dute, eta horrez gain, esko-  
lari laguntzeko diru kantitate bat es-  
katzen zaie. Borondatezkoa denez,  
nahi ez duenak ez dauka zertan or-  
daindurik. Baina ikastetxe askotan,  
ordaintzen ez badute, ikasleei ez diz-  
kiete beren azterketen notak ematen.  
Beraz, irakaskuntza dohainik da, bai-  
na errealitatean besterik gertatzen da.

Bestalde, hurrek uniformeak jan-  
tzi joan behar dute eskolara: blusa  
edo alkandora txuria, gona edo galtza  
urdin ilunak, galtzerdi txuriak eta za-  
pata beltzak. Horieta zerbait falta  
baldin bazaie, eskolara joan gabe gel-  
ditzen dira. Hemen zaila suertatzen  
zaigu hori ulertzea, baina beraiek ga-  
rrantzi handia ematen diote unifor-  
mearekin joateari. Uniformea hau-  
rrengan abe-



rriko  
balioa sor-  
tzekeo modu bat omen da, aberriaren-  
ganako maitasuna sortzekeo modu  
bat. Ez da kasualitatea uniformearen  
koloreak Nikaraguako banderaren  
kolore berberak izatea.

### Irakasleen egoera larria da

Nikaraguako irakasleen egoera ez  
da batere ona, batez ere ekonomiko-



ki.  
Oina-  
rriko solda-  
ta ez da 710 kordobata (70 dolar,  
12.600 pezeta edo 504 libera) iristen  
zenbait irakasleren kasuan, eta diru  
hori justu-justu iristen zaie bizitzeko.  
Somoto herrian 26 urte lanean dara-  
matzan Melba Luz Aguilera irakasle-  
ak dio soldata horrekin bere gastuen  
%60 ordaintzen duela. Managuako  
Ciudad Sandino auzoko Asentamien-  
to Nueva Vidako estatuko eskolan  
dabilen Claudia Corea irakasleak bi  
urte daramatza bertan lanean eta be-  
raien arazorik larriena soldata dela  
dio. *"Ni, adibidez, ezkongabea naiz,  
ez daukat haurrik, ikasten ari naiz e-  
ta izugarri kostatzen zait liburuak e-  
ta ikasteko materiala erostea. Ez zait  
iristen. Eta niri, ezkongabe eta ama i-  
zan gabe ez bazait iristen, ez dakit  
nola moldatzen diren besteak!"*

Formakuntza aldetik ere gauzak  
ez daude oso erakargarri. Lana hobe-  
to egin dezaten prestatzen dira ira-  
kasleak, baina ez profesionalki  
gehiago jakin dezaten.

Lan baldintzak oso txarrak dira, i-  
kastetxeak oso egoera txarrean bai-  
taude. Horrek bere eragina du irakas-  
leengan zein ikasleengan. Horrez  
gain, lan hitzarmenaren arabera, egu-  
nean zortzi ordu egin behar dute lan,  
bost ikasleen aurrean eta beste hiru  
prestatzen. Ordu horiek talde edo  
maila ezberdinetako hurrekin pasa-  
tzen dituzte askok, eta horrek progra-  
ma eta lan ezberdinak prestatzea da-  
kar, hots, lana areagotzea.

Egoera horrek guztiak bere isla du  
irakasleengan. Ez dago motibaziorik  
irakasle izateko eta jendeak beste i-  
kasketa batzuk egiten ditu unibertsita-

G

# GATA

## Nikaragua

### beste errealitate bat



tatean. Irakasle diren askok, berriz, beste zerbait ikasiko dutela diote, eta gazteek ere ez dute irakasle izan nahi. Egoera hori dela-eta, askok beste herrialdetara alde egiten dute eskolak ematera. Urtero 1.000-1.500 irakasle inguru dira beste herrialderen batera alde egiten dutenak edo beste lan batean hasten direnak. Irakasleek ez dute pizgarri ekonomikorik. Nikaraguako lanbiderik garrantzitsuenak izan beharko lukeenarentzako pizgarri ez dago. Melba Luzek dioenez, *"sektore produktiboa ez garela erantzun izan digute. Gainera, gure herriaren baldintza ekonomikoak dira eta, soldatak ezin omen dira igo. Ez dago estimulurik, asetasun pertsonala baino ez. Badakigu gazteengatik lan ona egiten ari garela, beren lanbide profesionala garatzeko laguntzen ari garela eta horrek betetzen gaitu. Gurasoek ere gure lana aintzat hartzen dute. Hori da daukagun gogobetetze bakarra"*.

Managuako Ciudad Sandino auzoko egoera

Iritzi berekoak dira Asentamiento Nueva Vidako Claudia Corea eta Leonel Toruño irakasleak. Lehen aipatu bezala, Irakasle bi hauek Managuako Ciudad Sandino auzoko estatuko eskolan dabilta lanean. Auzo hori orain dela 25 urte sortu zen, 1972ko lurrikararen ondoren jendea hara joan zenean. Geroztik, Juan urakanaren ondoren jende gehiago kokatu zuten bertan. Hondamen horien ondoren eratuz joan den auzoa da, beraz. Mitch urakanaren ondoren Managuako arrantzaleen auzoak urpean gelditu ziren eta hango 1.300 familia Ciudad Sandinora eraman zituzten.

Hai entzat etxebizitzak egiten hasi ziren eta gune hori da Asentamiento Nueva Vida.

Asentamentuan 9.000 haur inguru bizi direla kalkulatu da. Bi eskola daude horientzat: estatuarena eta Redes de Solidaridad taldearena. Aipatu bi irakasleak estatuaren eskolan egiten dute lan eta ikasturtea hasi aurreko astean topatu genituen eskolan. Beno, eskola deituz baldin baze goen. Izan ere, estalperik gabeko bi karpak osatzen zuten eskola; mahaiak elkarren gainean pilaturik zeuden, arbela erdi zintzilik, ez ate eta ez leihorik... Eta bi irakasleak han, eserita, haurrak matrikulatzen etorri zain, irribarrez, ilusioz eta gogoz beteta. *"650 haur matrikulatu dira goizeko txandan eta arratsaldekoan 500"* esaten digu Leonel Toruñok. *"Normalean goizerako eskakizun handiago egoten da, arratsaldez lanera joaten baitira. Gobernuak asteburuan egingo du matrikulazio kanpainako jaialdia eta ea haurgehiago matrikulatzen diren, oraindik oso baxu baitago"*.

**"Gela berean 10 urteko ikasle batekin sekula arkatzik eta kuadernorik hartu ez duen 18 urteko bat egon daiteke"**

Ikasturte hasieran gela bakoitzean 60 haur izatera irits daitezkeela diote irakasle hauek, baina kurtso amaierarako 25-30 izango direla. Desertzioa %50 baino handiagoa da, gurasoek lan egitera behartzen dituztelako.

Ikasturte batean bi maila irakasten direla azaldu digute; uztaile arte bat eta uztailetik aurrera bestea. *"Orain arte ez zen horrela, baina eraldatze kurrikularra dela-eta aldatu da"*. Hala ere, irakasle hauentzat zailena maila ezberdina duten haurrak gela berean edukitzea da. *"Adibidez, 10 urteko ikasle batekin batera orain arte arkatzik eta kuadernorik hartu ez duen 18 urteko bat egon daiteke"*.

Askotan irakasle, psikologo, erizain, mediku eta guraso lana egin beharrean aurkitzen dira. Etxean falta duten afektibitatea eta berotasunaren bila joaten dira irakasleengana. Izan ere, auzo horretako arazo sozial larrienak familia nukleorik edo batasunik eza eta droga dira. Tratu txarrak eta familiako sexu abusuak ere jasaten dituzte. Beste askok gurasoen lana bere gain hartzen dute. *"Iaz 11 urteko mutiko bat neukan 2. mailan. Bere anaia txikiarekin etortzen zen amak kanpoan lan egiten zuelako eta gauera arte ez zelako itzultzen. Bada, mutiko hori arduratzen zen bere anaiaren garbiketaz, janariaz, arropaz..."*. Beste askotan haurrak gosaldu gabe joaten dira, eta urdaila hutsik edukita ezinezkoa da ikasketetan kontzentratzea.

Egoera gogorra izan arren, irakasle hauek pozik eta ilusioz beteta zeuden. *"Geure bokazioagatik jarrai-*

*tzen dugu aurrera. Haurrei laguntzeak aurrera jarraitzeko indarra ematen digu. Oso polita da hurrek zuri irribarre egitea eta asko maite zaituztela entzutea".*

Irakasle hauen helburua hurrek ikastea eta maitatuak sentitzea da. *"Jakin dezatela benetan maitasuna ematen dien pertsona bat ondoan dutela, bere afektibitatea senti dezatela eta kontura daitezela daukan hoberena erakustera datorkiela. Dauzkaten krisietatik atera daitezkeela erakutsi behar zaie".*

#### Asentamiento Nueva Vidako beste ikuspegi bat

Aipatu dugun bezala, Asentamiento Nueva Vida azken bi urte hauetan sortu den Ciudad Sandino auzoko zati bat da. Asentamentu hau Redes de Solidaridad taldeak eraiki du eta hiru ardatz izan ditu bere lanak: azpiegituraren eraikitzea (etxebizitzak eta zerbitzu minimoak), hezkuntza eta lanpostuen sorrera. Prozesu horren hasieratik dabil bertan lanean Cristina Sanz lekaiame olitearra eta berak eman digu egin duten lanaren berri.

Bi urte hauetan 400 etxebizitza eraiki dituzte eta enpresa txikiak sortu ere bai jendeari lana emateko: okindegia, bloke fabrika, denda eta josteko tailerra. Mediker zerbitzu bat ere eskaintzen dute eta eskola eta jangela ere badituzte. Alde batetik haurtzaindegia dago, ama asko lanera joaten direnez, haurrak hor uzteko aukera izan dezaten. Eta bestetik, eskolan Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak, eta idazten eta irakurtzen ez dakiten adin

ezberdinetako haurrentzako gela berezia daude. Guztira 15 irakasle inguru daude eskolara joaten diren 200 haurrekin.

Eskola izango den beste eraikin bat egiten ari dira eta hurrengo urteetan haur eta maila gehiago izango dituzten esperantza daukate. Arazoa, ordea, finantziarioa da. Cristinak argitu digunez, *"eskolarentzako finantziario ofizialik ez daukagu eta horrek kezkatzen gaitu. Hau guztia hainbat instituzio eta proiekturen laguntzarekin eraiki da eta horiekin mantentzen dugu. Gobernuak ez du ezertxo ere egin, nahiz eta kaleak "Obras, no palabras" karteletan josi. Jasotzen diren laguntzak ez dira betirako izaten. Mitchen momentua pasa egiten da eta nola eutsi ondoren? Horregatik, Hezkuntza Ministeritzaren finantziarioa beharko genuke".*

Nueva Vidan 9.000 haur bizi dira eta eskola honetara 200 bakarrik joaten dira. Kopuru eskasa da, baina Cristinak finko baieztatu du arazoak ez direla globaltasunean konpondu. *"Hori ezinezkoa da; zati bat hartu eta hori aldatzen saiatu behar da, eta gu horretan ari gara".*

Eskola bat irekitzen denean lehentasuna ez da edukiak eta ikasgaiak irakastea, hori askoz ere beranduagoko gauza da. *"Hemen 9.000 haur zeuden egun osoz kalean, euritan, hautsez beteta, elikatu gabe... Horri erantzun bat emateko sortu genuen eskola. Horri erantzunik ematen ez badiogu, ez gara ezer humanitarioa egiten ari. Ez bagara zerbaite hezitzailea eskaintzen hasten balio-*

*ak alda daitezten, Nikaragua ez da pobreziatik aterako, baldin eta noiz-bait ateratzen bada".*

Dena dela, zaila da jendea kontzientziatzea eta gurasoak motibatzea haurrak eskolara bildal ditzaten. *"Nikaraguan familiak hain daude desegituratuak, non haurren egonkortasunari ez dion batere mesederik egiten. Eta pobrezia berak sortzen dituen faktoreez gain, badaude kulturalak direnak ere".*

Teorian ez dago gutxietsia hezkuntzaren balioa, baina praktikan batere zaindu gabe dagoela dio Cristinak. *"Teorian inork ezin du esan hezkuntza baloratzen ez duenik. Baina familiek bizirauteari eta jateari ematen diote lehentasuna. Horretarako haur askok lana egin behar du; eskolan zerbaite ordaindu behar badute ez dituzte bidaltzen; jendea motibatorik gabe eta zeharo utzita dago".*

Nikaraguarra ez den pertsona baten hango egoera eta etorkizuna nola ikusten dituen galdetu diogu Cristinari. Nikaraguak atzerriko laguntza asko jaso duela erantzun digu, diru gehien jasotzen duen herrialdeetako bat dela, eta horrek zera ekarri duela: jendea norbait laguntzera etorri zain egotea. *"Eskatzera oso ohituta daude; gobernuren bat, GKEren bat... etorriko dela pentsatzen dute, eta horrek ez du batere lagundu gauzak zaintzeko, kezkatzeko... Horretan sandinistek kulpak badute eta onartzen dute. Bere garaian asko eman zuten, baina legislatura onik gabe, eta ondoren arazoak sortu ziren gobernu aldaketarekin. Horregatik, guk ez diegu ezertxo ere ematen dohainik. Besterik ez bada ere, kordobaxo bat ordaintzen dute, nolabait kolaboratu egiten dute horrela. Esfortzurik eskatu gabe ematea ez da batere hezitzailea".*

Egoera honen guztiaren gaineko hausnarketa egin ostean, Cristinak uste du iraultzarekin lortu zen elkartasunaren kultura asko galdu dela eta Nikaraguak berreraikitze oso sakona behar duela.



**G**

# Melba Luz Aguilera

## CGTEN-ANDEN irakasleen sindikatu- tuko sortzailea eta kidea

***“Frente Sandinistak irabazita eta bake egoeran, lehentasuna hezkuntzak izango du”***

CGTEN-ANDEN (Confederación General de Trabajadores de la Educación de Nicaragua) da Nikaraguako irakasleen sindikatu nagusia. 1978an sortu zen, oraindik Somoza agintean zegoenean, eta hasiera hartatik gaurdaino ibili da Melba Luz Aguilera sindikatuan. Era berean, 26 urte daramatza irakasle lanetan. Ongi ezagutzen ditu Nikaraguako irakaskuntzaren lehenaldia eta oraina, eman diren arrerapausoak eta atzerapausoak.

**Zein asmo edo helbururekin sortu zen sindikatua?**

Helburua irakasleak biltzea eta sandinistak boterera iristeko aukeraren aurrean prestatzea zen. Hasieran erdi klandestinitatean sortu zen. Izan ere, Somozaren garaian irakasle sindikatu independenteak desagertarazi egin ziren. Managuan 1978an egin zen lehen asanblada eta sindikatu juridikoki sortua gelditu zen. Departamentua guztietan sortu ziren taldeak sindikatuak hedadura nazionala izan zezan. Ni neu Somoton nengoen eta egon naiz, Madriz departamentuan.

**Zein antolaketa dauka CGTEN-ANDENek?**

Zuzendaritza taldea dauka zortzi kideekin. Federazio bat da eta departamentuetako herri guztietako taldeek osatzen dute federazioa.

**Sindikatuaren sorreratik zaude bertan eta urte asko daramazu irakaskuntzan. Egingo al zeniguke irakaskuntzaren eboluzioaren balorazioa?**

Urte hauetan Nikaraguak etapa ezberdinak bizi izan ditu. Laburutz, 1937-1979 urteetan Somozaren diktadura bizi izan genuen. Somozaren erorketaren ondoren, Frente Sandinista jarri zen boterean, 1979-1990 bitartean. 1982-1989 bitartean gerra garaia bizi izan genuen Frente Sandinista eta Erresistentziaren artean. 1989an hauteskundeak egin ziren eta sandinistek galdu eta Violeta Chamorro irabazi zuen. 1990-1997 bitartean egon zen boterean eta urte hartako hauteskundeen ondotik Alianza Liberal alderdiko Arnoldo Aleman jarri zen presidente. Aurtengo azaroan egingo dira berriz hauteskundeak.

Ni Somozaren diktaduraren ga-

**Sandinistekin alfabetatzeko gurutzada nazionala egin zen eta anal-fabetismoa %52,9tik %12,9ra jaitsi zen**



raian hasi nintzen lanean, nekazal gunean, eta eskakizunak ez ziren asko. Irakasleak askatasuna zeukan ikasle- en beharren arabera lan egiteko. Hasi berria nintzenez, ikuskaria noiz etorriko zain nengoen, baina ez ziren etorri. Bilerak egiten genituen, baina orientazio orokorrak emateko, formakuntzarik ez zegoen. Irakasleak lana egiteko askatasuna zeukala sentituen. Baina zergatik zegoen askatasun hori? Gobernuaren interes ezagatik, batez ere. Garai hartan eskolatzeko indizea oso baxua zen, komunitate askotan ez zegoen eskolarik eta ez zegoen interesik hezkuntza masifikatzeko.

1979 iraultza sandinistak irabazi zuen. Momentu hartan analfabetismoa izugarria zen, %52,9. Sandinistekin alfabetatzeko gurutzada nazionala hasi zen, eta nik departamentuko aholkulari tekniko bezala hartu nuen parte. Herritar zibilak eta denak inplikatu ziren, izugarrizko lana egin zen, eta analfabetismoa %12,9ra jaitsi zen.

Gero Helduen Hezkuntzarako Ministeritza ordeko egiturak antolatu ziren eta nik departamentuan jarraitu nuen lan hori egiten. Jendearen alfabetatzearekin jarraitu genuen eta Helduen Hezkuntzan 6. mailara iritsi ginen. Gaur egun Helduen Hezkuntza hartan ikasitako jendea INPRUN (Instituto de Promoción Humana) eta beste hainbat elkartetan ari da lanean. Emaitzak hor ikusi ziren.

Haurren eskolatzeari ere gehitu egin zen sandinistekin. Eskola asko ireki ziren, ezagutzen ez ziren komunitateetan eta dena. Jendearen partaide-tza oso dinamikoa izan zen, eta irakasleena ere bai. Nahiz eta hezkuntza asko politizatu, irakasleek edukietan parte hartzen zuten, konstituzioak eskubide hori onartzen baitu. Horrela, irakasleak aktibo ziren; lan egiteko autonomia nahikoa zegoen. Ildo horretatik, egileen kolektiboak eratu ziren; esperientzia askoko irakasle taldeak ziren, gure herrialdeko komunitateen errealitatea ondo ezagutzen zutenak, eta beraiek osatu zituzten edukiak. Irakasle eta ikasleei ere materialak eskura jarri zitzaizkien. Horrez gain, irakasleak analitikoago bihurtu ziren, ikasketa dinamika edo metodologia ikaslea partaide izatea zen, eta irakaslea orientatzaile baino ez. Emaizta oso onak lortu ziren.

Gero, gerraren eraginez, gauzak aldatu egin ziren. Herri irakasle asko (horrela deitzen genien guk) hil egin ziren. Eskola asko hutsik gelditu ziren. Irakasle eta ikasle gazte asko erretserbara eramana izan ziren eta programa eroriz joan zen. Horrela, gerraren ondoren eta hauteskundeak egin



eta gero, Violeta Chamorro jarri zen gobernuan eta gauzak aldatu egin ziren. Guretzat arrotzak ziren edukiak ezarri ziren, Kolonbiako testuliburuak dezentente erabili baitziren. Adibidez, Nikaraguan "medicina" hitza erabiltzen da eta Kolonbian "droga". Ondorioz, testuliburuetan gure lexikoa distortsionatzen zen. Hori gure errealitateari ez zegokiola adierazi genuen irakasleok, baina alferrikakoa izan zen. Geroztik irakasleok ez dugu parte hartzen edukiak egiterakoan, liburu guztiak kanpotik datoz eta hori bete behar da.

**Ezarri al zen kontrolik liburu horiek erabil zutezen eta eduki haiek irakats zitezen?**

Zuzendariak klaseak gainbegiratu zituzten, baina zenbat ikasle etortzen ziren eta zenbat ez kontrolatzen zuten batez ere, ez zer irakasten zen. Edukiak irakaslearen eskuetan gelditzen zirela esan daiteke. Doña Violeta boterean jarri zenean guk irakasleei esan genien kanpoko eduki berriei jarraitzen bagenien ikasleak robotizatuko genituela, eta ordura arte bezala jarraitu behar genuela lanean. Batzuk lehengo geure biderei jarraitu diogu, eta beste batzuk ez.

**Etorkizunera begira, nola ikusten duzu Nikaraguako irakaskuntza?**

Eskolatzeari indizea jaitsi egin da eta guraso gehienek ez daukate haurrak mantentzeko adina. Boterera berriz Frente Sandinista iristen denean egoera aldatu egingo den esperantza daukagu guk. Frenteari irabazita eta bake egoeran, lehentasuna hezkuntzak izango du. Berriz ere alfabetatze gurtzadari ekingo genioke. Beste helburu bat gazteak ikasten jarrai dezaten da, profesionalizatzea. Orain nekez prestatzen dira gazteak eta prestatzen direnak Managuara joaten dira. Hori aldatu egin behar da eta aldaketa hori sandinistekin etorriko da.





## Somotoko Quinchoak

Somoto herria Nikaragua iparraldean dago, Madriz departamentuan. Han Quinchoak izeneko eguneko aterpetxe bat dago egoera larrian eta beharrea dauden haurrentzat.

Sandinistek iraultzaren ondoren Nikaragua osoan ireki zituzten izen bereko zentroak, baina 90. hamarkadan isten joan ziren Violeta Chamorroren gobernuarekin. Somotokoa, ordea, 1995ean berriro ireki zen Euskal Herriko udaletxeetatik jasotako dirulaguntzari eta HONEK GK Eren lanari esker. Gaur egun ere laguntza horiei esker jarraitzen du irekita.

Zentro edo aterpetxe honetara 60 haur inguru joaten dira egunero eta hainbat zerbitzu jasotzen dituzte: altuera eta pisuaren kontrola egiten zaie, haurren hazkunde egokia bultzatzen duen elikadura egokia ematen zaie, arreta pertsonalizatua eskaintzen zaie, eskola errefortzuko klaseak antolatzen dira, haurren formakuntza integralean lagungarri diren aktibitateak egiten dira, eta aroztokia eta josteko tailerra daude.

Eskolara goizez joaten diren haurrak arratsaldean joaten dira Quinchoetara, eta eskolara arratsaldean joaten direnak goizez. 8-16 urte bitarteko haurrak biltzen dira Quinchoetan. Eta horiekin guztiekin lana egiteko zazpi

pertsona daude. Doña Moncha Martínez sukaldaria da eta bere lanari garrantzi handia ematen diote. *"Quinchoetara etortzen diren haurrak ondo elikatuta egotea nahi dugu. Ez dute egunero gauza bera jaten, elikadura orekatua da. Izan ere, batzuk etxean ongi jaten dute, baina beste batzuk ez, baliabide urriko haurrak baitira. Horregatik, guk esnea, zukuak, fruta, ogia... elikatzen duten jakiak ematen dizkiegu. Eta hori guztiz garrantzitsua da, beren elikaduraren araberako errendimendua erakutsiko dutelako eskolan".*

Doña Teresa Martínez zuzendaria dioenez, haurren arteko harremana asko lantzen dute. *"Etxean bezala sentitzen dira, elkarri laguntzen diote eta elkar maitatzen dute. Elkarri arropa garbitu edo josten diote; batek bestea orrazten edo garbitzen du... Gure helburua da haurrek hori guztia ikastea eta ikasitakoa amei eta anai-arrebei erakustea".*

**Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldearen kolaborazioa**

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldeak iaz bi saio egin zituen Euskal Herrian Somotoko Quinchoen alde. Saioan bildutakoarekin eta jendeak





kontu korrontean sartutako diruarekin milioitik gora pezeta lortu ziren. Eta orain, laguntza horri jarraipena emango diote.

HONEK GK Eren bitartez Nikaraguara bidaiatu dute eta hango haurrei "Parrandan" ikuskizun berria eskaini diete. Guztira bederatzai saio egin dituzte zazpi egunetan; Nikaragua iparraldeko herri eta komunitate urrunduetan zein Managua hiriburuan; milaka kilometro egin dituzte kamioi batean traste guztiak hartuta; kolore bi-

ziz jantzi dituzte herrietako plazak eta aretoak; irribarrez utzi dituzte haur zein gurasoak; dantzan jarri dituzte "chiguinak"; 1.000 sudur gorri banatu dituzte; eta harreman zuzena izan dute nikaraguarrekin.

Hartu-eman horretan eman adina jaso dute: hango haurren erantzuna, begirada, irribarrea, abestiak, jolasak, dantzak, ohiturak, kultura... Bestalde, Managuan "Guachipilin" txotxongilo taldearekin eta beste pailazo eta artisterekin biltzeko parada izan zuten, eta

material ugari ekarri dute: kantak, bideoak eta abar.

Horrekin guztiarekin hurrengo ikuskizun berria prestatzeko asmoa dute. Hango kantak euskaratuko dituzte eta Nikaraguari buruzko ikuskizuna egingo dute. Era berean, hango haurren bizimoduari buruzko bideo didaktikoa eta komiki bat egin nahi dituzte. Xedea hemengo jendeari modu apalean hango kulturaren berri ematea da, eta baita Quinchoentzako laguntza ekonomikoa lortzea ere.





# Los Pipitos:

## haur ezinduen alde lanean diharduen elkarte



Los Pipitos izena oso ezaguna da Nikaraguan. Haur Minusbaliatuen Guraso eta Familien Elkarte da. 1987an sortu zuten 21 gurasok eta gaur egun Nikaraguako 40 herritako 10.000 familia dira elkartearen kide. Elkartearen bulego zentrala Managua baldin badago ere, 40 herritan kapitulua daude, hots, herrietako bulego txikiak. Guztietan Down sindromea, burmuin elbarritasuna, burmuin atzerapena eta entzumen eta hizkuntza arazoak dituzten haurrei egokitutako zerbitzuak ematen zaizkie.

Elkarteak hiru helburu nagusi ditu:

1- Minusbaliatuak edo urritasunak dituzten seme-alaben gurasoak eta familiakoak biltzea euren esperientziak elkartrukatzeko, euren arazoak ulertzeko eta denen artean irtenbideak bilatzeko. Betiere helburua seme-alaba horientzat ahalik eta garapen gehien lortzea da, eta bizitzako arloetan erabat integratzea: sozio-afektiboan, hezkuntzan, lan munduan, ekonomikoan, kulturean eta kirolean.

2- Minusbaliari aurre egiteko, garapenerako aldaketak goiz antzemateko eta familian hezkuntza goiztiarra garatzeko iniziatibak eta ekintzak antolatzea eta bultzatzea.

3- Gizarte-sentsibilizatzea, heztea eta konprometitzea minusbaliak, urritasunak edo mugak dituzten pertsonak integratzeko erantzukizuna har dezaten.

Helburu horiek lortzeko bidean, hainbat ekintza burutzen ditu Los Pipitos elkarteak, eta guztiak bost eremutan laburbildu genitzake:

1- Minusbaliatuekin eta urritasunak dituzten pertsonekin bizi diren guraso eta familiakoei zuzendutako lanak egiten ditu.

2- Minusbalia, urritasun edota atzerapenak dituzten haurrentzako Ogasun eta Hezkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu.

3- Sentsibizazioa eta gizarte integrazioa bultzatzeko ekimenak antolatzen dira.

4- Formakuntzarako eta lan mundurako alternatibak bultzatu eta kudeatzen dira.

5- Elkartearen garapena eta iraunkortasuna bermatzeko ekimenak egiten dira.

**"Eskola ereduak, denontzako eskolak" proiektua**

Nikaraguan osoan gutxi gorabehera 3.900 haur ezindu daude, eta ez dago horiei erantzuteko prestaturik dagoen ikastetxerik. Hezkuntza Berezi-ko 17 zentro daude, baina ongi antolatu gabe daude eta ez daukate indar handirik. Gainera, 4.000 haur inguru horietara ez ezik, zentro normaletara joaten dira, eta dauzkaten baldintzak ez dira egokiak, inolaz ere. Hezkuntza sistema haur horiei erantzuteko prestatu gabe dago.

Horregatik, Los Pipitosek "eskola ereduak, denontzako eskolak"



proiektua jarri zuen abian duela hiru urte. Guillermo Gosebruch elkartearen idazkari exekutiboak azaldu digunez, "eskola hauekin haur ezinduentzako eskola eredu bat eratu nahi dugu, ondoren Hezkuntza Ministeritzari erakutsi ahal izateko". Lau eskola dituzte eta beraietan haur horiekin lana egiteko prestatuta dauden irakasleak daude. Azpiegitura ere beharrei egokitu dago. Ezintasunen inguruko kezka, beharrak, legeak, giza eskubideak eta abar etengabe aztertzen dira zentro horietan.

Ikastetxe horiek aurrera ateratzea erronka handia da Los Pipitos elkartearentzat, baina Gosebruchek beste erronak bat ere azpimarratu digu: minusbaliatu nerabeei erantzutea. "14 urte hauetan haurrekin jardun gara lanean, eta hasieratik gurekin egon diren haurrek 15-18 urte dituzte dagoeneko. Adin horretako gazteentzat ez dugula ezer egin konturatu gara. Hezkuntza Berezia 16 urterekin bukatzen da, gaztea etxera itzultzen da, eta kitto" esplikatzen du Gosebruchek. "Horregatik, Institutu Teknologikoarekin akordio bat egin nahian gabilta. Beraiek ezintasunentzat egokitutako mintegi bat daukate, eta gazte horiek han nola integratu aztertzen ari gara".



# Nikaraguako

## egoera soziala

Hezkuntza arloko egoeratik abiatu bagara ere, hezkuntza ez dago gizartetik at. Egoera ekonomikoak, politikoak, sozialak eta abarrek eragin zuzena dute, hori bistakoa da.

Arlo bateko zein besteko egoera aldatzeko lanean ari diren elkarte edota taldeak ugari dira Nikaraguan. Horietako bi CISAS eta NITCA dira. Gizarteko bizi baldintzak aldatzea dute helburu biek, eta batez ere haurrenak.

### CISAS: osasun eskubi-dea bermatu nahian

CISAS (Centor de Información y Servicios de Asesoría en Salud) Gobernu Kanpoko Erakunde nazionala da. Gaixotasunen prebentzioan egiten du lan, osasuna pertsona guztien eskubidea dela pentsatzen dutelako. Diana Brooks CISASeko hezitzailetako batek adierazi digunez *"osasunaren inguruko ezagutza dezentralizatu behar dugu. Pertsonak kontzientea egin behar ditugu osasuna eskubidea dela eta osasun hori mantentzeko ahal dutena egin behar dutela"*.

Intentzio horrekin egiten dute lan CISAS erakundeko hezitzaileek hainbat komunitateetan haurrekin, nerabeekin, emakumeekin eta gizonekin. Komunitateko kideei euren arazoak detektatzen laguntzen diete eta ondoren horiei irtenbideak bilatzen. Horretarako, bertako hainbat eragile formatzen dituzte, gero horiek izaten direlako komunitateko aktibitateak bultzatzen dituztenak. *"Ezagutza demokratizatzeaz ari bagara, beraien osasunaren erantzuleak direla eta zerbait egin dezaketela esaten ari ba-*



*gara, erabakitze aukera eta espazioa eman behar diegu. Horregatik uzten dugu eragileen ardurapean"* dio Brooksek. *"Oso garrantzitsua da lana beraiek egin behar dutela konturatzea. Guk laguntza ematen diegu eta horrela ezagutza eta jakintza eskuratzen dute. Horrek aukera emango die beraien lanarekin jarraitzeko gu ez gaudenean"*.

### Haurrentzat ... Ni o a Ni - o metodologia

Esan bezala, komunitate horietako haur, gazte, emakume eta gizonekin egiten dute lan. Haurrei dagokienez, "Niño a Niño" metodologia erabiltzen dutela adierazi digu Brooksek. 1977an sortu zen lan egiteko modu hau 70 herrialde baino gehiagotan zabaldua dago eta Nikaraguan 1980an hasi ziren erabiltzen. Metodologia horren oinarria da haurrei espazio bat ematea hitz egin dezaten, parte har dezaten, jakintzarako eskubidea izaten dezaten eta ekarpenak egin ditzaten.

Horretarako, lau pauso ematen dituzte:

- 1- Aztertu: haurrek diagnostiko bat egiten dute komunitatean eta familian dituzten zailtasunak eta arazoak zein diren jakiteko.
- 2- Arazo horien zergatia eta ondorioak zein diren ikusten da.
- 3- Komunitatera egokitutako plana egin eta exekutatzen dute.
- 4- Ebaluaketa egiten da zer eta nola egin den ikusteko eta berriz ere aztertzeko.

"Niño a Niño"ren xedea da haurrak kontziente egitea lanaren fruituak ikusteko eman behar dituzten lau pauso horietaz. Hori posible izan dadin hiru modutara prestatzen dituzte haurrak:

- 1- Jakintza ematen diete: zer den CISAS erakundea, zer den eragilea, nola eskaini lehen sorospenak, teknika parte-hartzaileak (txotxongiloak, pailazoak, eskulanak, ipuinak...).
- 2- Proiektuak egiten hasten dira. Haurren ikuspegitik proiektu txikiak

nola egin ikasten dute.

3- Independentzia lortzen dute. Hasitako lana beraiek jarrai dezakete eta CISASekoek aholkatu baino ez diete egiten. Hilean bi aldiz joaten dira, eta gainontzekoa beraiek egiten dute, hots, beraiek ateratzen dute aurrrera lan plangintza osoa.

CISASekoek haur seguruak nahi dituzte, esperantzak eta ametsak dituztenak, solidariorak, elkarri errespetua diotenak, beraien komunitatea maitatzen dutenak, natura eta ingurunea maitatzen dutenak, elkar maitatzen dutenak... eta hori guztia pausoz pausoz lortu behar da. Denbora eskatzen du, baina haurrak aldatzen ari direla ikusten ari dira, iniziatiba hartzen ari dira eta hori da garrantzitsuena.

### NITCA: kaleko haur langileen egoera hobetu nahian

NITCA (Niños Trabajadores de la Calle) erakundeak kaleko haur langileekin egiten du lan. Haur horiek dituzten osasun eta heziketa arazoak



gutxitzeko proiektuak bultzatzen dituzte. Momentuz komunitate batean ari dira; Managuako kanpoaldean da goen batean. Komunitate horretan nekazal guneetatik etorritako jende asko bizi da eta langabezia arazoa izugarri da.

Proiektua abiatzeko komunitate horretako haur, gazte, emakume eta gizonekin bildu ziren eta zein arazo, behar eta muga zeuzkaten aztertu zu-

ten denen artean. Gauza asko atera ziren eta botaketa baten ondoren haurrentzako jangelari, osasunari ea hezkuntzari eman zitzaien lehentasuna. Momentu honetan 85 haur elikatzen dira eraikitako jangelan. Amak dira janaria prestatzen dutenak eta euren inplikazioa handia da.

Inplikazio hori lortzea ezinbestekoa dela irizten du Fidel Moreira NITCAko kideak. *"Garapena eta aldaketak lortzeko beraiek garatuko dituzten iniziatibak bilatu behar dira, bestela ez dute sekula gaitasunik edukiko beren garapena aurrrera eramateko. Noski, ez da egun batetik bestera lortuko, indibiduoari bere aldaketa propioa egin dezan segurtasuna ematen zaionean baizik. Gure proiektuak benetako arrakasta lortuko du "agur, prest gaude" esaten badigute".*

Horretara iristeko bidea oztopoz beteta dago, ordea. Lan hori zaildu egiten du familiek bizi duten egoerak. Lehentasuna bizirautea da eta arazo ugari dituzte: haur asko dituzte, ama ezkongabe ugari dago, ez dute zortzi orduko lanik, goizean atera eta gauean iristen dira etxera, hiriguneetako pobrezia areagotu egin da nekazal guneetako migrazioengatik, ez dago elkarbizitarik beraien artean... Moreirak dioenez *"Hegoamerikako herrialdeetan orain dela 30 urte gertatutakoa orain ari gara pairatzen Nikaragua. Gainera, eraldaketa hori globalizazioaren garaian gertatzen ari da, eta horrek ere eragiten du. Denok ikusi ditugu hemendik 5, 6, 10 edo 15 urtera Nikaragua nola egongo den agertzen duten datu estatistikoak, eta gobernuak kasurik egiten ez badie, ez dakit zer gertatuko den. Pobreziaren eta familiaren egiturarik eza oso arazo larriak dira".*

### Lan bateratuaren beharra

Egoera hau guztia aldatzeko NITCA bezala beste hainbat erakunde ari dira. Baina Moreirak guztien arteko koordinazioa falta dela dio. *"Egoerari*



*aurre egiten diogu, baina bakoitzak bere aldetik, sakabanatuta. Benetan orokorrean eragina izateko dibulgazio eta kontzientizazio politikak zabaldu behar ditugu. Gizarte zibil bezala eragin nahi badugu, denok batera egin behar dugu lan".*

Akatsetako bat indibiduoan zentratu eta proiektu indibidualak aurrera eramatea izan dela dio Moreirak. Horren ordeztu komunitateko eta gizarteko proiektuak egin behar direla uste du. Eta horretarako oso garrantzitsua da komunitatean integratzea. *"Askotan ez gara benetan integratu komunitateetan eta oinarri zientifikotan oinarritu da guk planteatutako garapena. Beste askotan modaren atzetik ibili gara eta hori da egiten dugun beste autokritika bat".*

Dena dela, hori aldatzen ari dela dio, eta hurrengo urteetan erakunde horien arteko koordinazioa areagotu egingo dela pentsatzen du.

# fernando robleto

Nikaraguako hezkuntza ministroa



Datozen 15 urtetarako Hezkuntza  
Plan Nazional adostua egin dugu



Nikaraguako Gobernuko Hezkuntza ministroa da egun Fernando Robleto. Orain dela bi urte hartu zuen kargu hori managuar honek, eta lehendabiziko aldiz hasi zen hezkuntza arloan lan egiten. Ordu arte petrolio konpainia internazional batean aritu zen. Beretzat erronka izugarria izan da zeregin berri hau, eta gustura dago egin duenarekin. Horixe jakin nahi izan dugu, hain zuzen ere, zer egin duen eta nola ikusten duen Nikaraguako hezkuntzaren egoera Hezkuntza ministroak.



**Nola baloratzen duzu Nikaraguako hezkuntzaren bilakaera Somoza-ren diktadura amaitu ondorenetik gaur egun arte?**

Historia laburra eginez, 1990az geroztik erreformak egin dira. 80ko hamarkadan sistema demokratikoari buelta eman zitzaion, eta hezkuntza estatu sandinistaren kontrol bide bilakatu zen. 90etik aurrera, Violeta Chamorro boterean jarri zenean, beste aldaketa bat hasi zen, hezkuntza sistema berri bat jarri zen abian: curriculum berria, ministeritzan langile gehiago, testuliburuak aldatu ziren... Horrek bost urte iraun zuen. Ondoren, Arnoldo Aleman presidentearekin modernitatearako aldaketa egin da, batez ere. Gobernuko aurrekontuaren portzentaiarik handiena hezkuntzara bideratu da, %20, hain zuzen ere. Hezkuntzari lehentasuna eman zaio.

**Zein izan dira modernitateari begira egin diren aldaketak?**

Hasteko, Lehen Hezkuntzako curriculum berriak egin dira, eta orain Bigarren Hezkuntzakoak egiten ari gara.

Bigarrenik, irakasleentzako formakuntzarako eta Irakasle ikasketetarako eredu berriak diseinatu ditugu. Irakasleen soldatak ere igo ditugu, benetan oso baxuak direla iruditzen bai-

tzaigu. Soldata baxuaren arazoak sufrimendu asko sorrarazi dizkigu, irakasle askok lana utzi baitute.

Irakasleekin jarraituz, programa berezi bat prestatu dugu irakasleek gurasoak eta familiak bisita ditzaten eta haurrak eskola bidaltzera anima ditzaten. Hezkuntza komunitatea irakasleek, ikasleek eta gurasoek osatzen dute, eta beraien arteko erlazioa estutu nahi da programa horrekin.

Hirugarrenik, helduen alfabetatze programarekin analfabetismoa ia %4 jaitea lortu dugu, hots, %25etik %18ra. Aurten alfabetatu horiek unibertsitatera edo lanbide bat ikastera joan daitezten animatu nahi ditugu, horrela lana bilatzeko aukera gehiago izango baitute.

Laugarrenik ikastetxteen erakuntzari bultzada handia eman diogu. Inbertsio handia egin da azpiegituran. 365 eskola egin ditugu lehen hiru urteetan, eta azkeneko hontan ia 700 izan dira. Horrek klaseak goizez ez ezik, arratsaldez eta gauzez emateko aukera ematen digu. Aldaketa erakargarri horrek gelak hurrez betetzea ekarri du.

Azkenik, bada beste gauza oso onoso positibo bat: iaz 9.000 testuliburu banatu genituela haurren artean. Estatuko eskoletako haurren %99ak bere testuliburuak dauzkala esan genezake, eta oso harro gaude testu modernoak eta eguneratuak dauzkatelako. Horrez gain, mahaiaik eta motxilak ere banatu genituen. Nekazal guneetako haurren %30engana iritsi ginen eta motiba zitezen lortu genuen.

Aurten nekazal guneetako familiei laguntza ekonomiko emateko programa bat jarri dugu martxan. Nekazariak haurrak lanera bidaltzen dituzte, edota uniformerik ez dutelako eskolara bidali gabe uzten dituzte. Ematen zaien dirulaguntzarekin haurrak eskolara bildatzeko moduan izango dira. 12.000 familiengana iritsiko gara aurten eta kopuru hori gehituz joango gara pixkanaka-pixkanaka.

Dena dela, aldaketa horiez gain, bada benetan garrantzitsua eta azpimarratzekoa den lorpena: Hezkuntza Plan Nazionala egin dugula.

# Fernando robleto

Hezkun-  
tzarekin  
biztanleriaren  
maila  
ekonomikoa igo  
egingo da eta  
inbertsio  
nazionala zein  
internazionala  
egiteko gai  
izango gara.  
Hori da gobernu  
honen filosofia

**Zer da Hezkuntza Plan Nazionala eta zergatik da berau lorpenik garrantzitsuena?**

Hezkuntza osatzen duten hiru azpistemetako partaideek egindako plana da. Lehenengo aldiz ados jarri gara hiru azpistemak, eta hori oso garrantzitsua da.

Hiru azpistemak hezkuntza orokorra (Lehen Hezkuntza, Bigarren-Hezkuntza, Helduen Hezkuntza eta Hezkuntza Berezia), hezkuntza teknikoa eta hezkuntza unibertsitarioa dira. Lehenengoa Hezkuntza Ministeritzaren eskuetan dago, bigarrena Institutu Teknikoak kudeatzen du, eta hirugarrena Unibertsitateko Batzorde Nazionalak.

Hiru erakundeak elkarrekin jardungaralanean eta hezkuntzaren alorreko hainbat gai jorratu ditugu: curriculum, azpiegitura, irakasleen formakuntza... Eta horrekin, datozen 15 urtetarako plan bat egin dugu. Plan horretan Nikaraguako hezkuntzaren arazoa planteatzen da, eta zer eta nola egingo dugun hurrengo 15 urtetan eagoera hori aldatzeko.

Nik uste dut plan horrekin hezkuntza despolitizatzea lortzen badugu, aurreko urteetan ez bezala, hezkuntzari lotutako gauzak soilik egingo ditugula eta emaitza onak lortuko ditugula.

**Beste erronkarik gelditzen al zaitzu gobernuan egoteko denboraldia bukatu aurretik?**

Bai, beste analfabetismorako plan bat lortzea, hau da, informatikarako. Idazten eta irakurtzen irakatsiko diogu jendeari, baina informatika ahaztu gabe. Horrela, garapen programa bat lantzen ari gara informatikako laborategiak egon daitezen, irakasleentzako prestakuntza egon dadin... Arlo hori lantzeko nazioarteko laguntza daukagu.

**Egindako aldaketen artean, zentro autonomoak sortu dituzu. Zer dela-eta? Nolakoak dira? Zer mesede ekarri dute?**



Es-  
kola auto-  
moak komunitatearen hezkuntza partaidetza areagotzeko sortu eta bultzatu dira. Ministeritzak arauak egiten ditu, baina gainontzekoa eskola kontseiluaren eskuetan uztea da helburua. Gurasoak, ikasleak eta irakasleak izan daitezela erabakiak hartzen dituztenak, eta ez Ministeritza. Zeren zentroa abeltzantza gunen batean badago, horrekin zerikusia duen zerbait irakastea interesatuko zaie; edo arrantza gunen batean badago, arrantzarekin lotutako ikasgai bat komeniko zaie. Zentzu horretan, ikastetxeak erabaki horiek hartzeko askatasuna eduki dezan nahi dugu.

Dena dela, ez da gauza erraza. Gurasoak ez daude eskolan parte hartzera ohituta, eta asko landu behar da alderdi hori.



## **Irakaskuntza publikoa dohainik dela dio legeak, baina praktikan ordaindu egiten da.**

Legea oso argia da; hezkuntza doakoa da. Bigarren Hezkuntzan gurasoek aukerako eta borondatezko laguntza eman dezaketela ere esaten du, baina borondatezkoa. Beraz, egiten diren kobraketak ilegalki egiten dira, eta zuzendari horiek zigortu ditzakegu legez. Ni zentroak bisitatzen ibili naiz eta ezin dutela eta ez dutela kobratu behar azpimarratu diet. Hori gertatzen denaren frogak baldin badauzkat, zigor dezaket. Froga horiek lortzeko iturria gurasoak dira, beraiek dira informazio hori eman diezaguketenak.

## **Ministeritzak ez du inolako kontrolik egiten?**

Ministeritzaren kontrola badago, baina batez ere gurasoena. Beraiek dira eskola kontseiluan daudenak. Guk ikuskariak eta teknikoak bidaltzen ditugu, baina beraiek dira ematen diegun diruaren erabilpen ona egin behar dutenak eta behar den gauzetarako bideratu behar dutenak.

## **Zein da egiten ari diren aldaketa horien guztien filosofia?**

Lehenengo, gobernu eta herrialde bezala, konbentzitura gaudela biztanleria heziz soilik aterako garela gauden pobrezia honetatik. Ez dago beste formularik. Nekazarien, langileen eta erdi mailako jendearen haurrei aukera ematen diegun heinean irtengo gara gauden egoetatik. Irakurtzen eta idazten ikasteko aukera baldin badute, edota Lehen ikasketak edo Batxilergoa egiteko, biztanleriaren maila ekonomikoa igo egingo da eta inbertsio nazionala zein internazionala egiteko gai izango gara. Hori da gobernu honen filosofia.

Horrez gain, behin eta berriz eskatu behar dugu hezkuntzaren aurrerakuntua igotzeko. Helburuak hezkuntza modernizatzea, hezkuntza eraginkorra lortzea eta estatuaren parte-hartzea gutxitzea eta irakasle, ikasle eta



gurasoena areagotzea dira. Noski, hori guztia hezkuntza politika eta oinarrizko arauak mantenduz, bai moralak nola balioen ingurukoak.

## **Zein izango lirateke balio horiek?**

Oinarrizkoak direnak: errespetua, egia, helduekiko zintzotasuna, gardentasuna... Oinarrizko balioak dira, etxean ikasten hasten garenak eta hezkuntzan indartu behar ditugunak modu zintzo eta profesionallean.

Pobrezia dela-eta, egungo gizarte-ko balio modernoak alde batera uzten ditugu, eta ez dugu hori egin behar; balio horiek ere ez ditugu ahaztu behar.

## **Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Oso ondo. Gauza asko aurreratu ditugula ikusten dut. Urte eta erdian ez da inolako huelgarik egin, sindikatuekin izandako elkarrizketak ondo burutu dira beraiekin lotutako gaietan parte hartu dutelako...

Oraindik gauza asko dauzkagu egiteke, baina Ertamerikako hezkuntza sektorearen batasuna dela-eta, asko aurreratuko dugu. Beste herrialdeen esperientziak baliatuko gara, eta ez dugu beraiek sufritu dutena pairatuko. Beste herrialdeetan ezarrita dagoena azkar ekar dezakegu, eta gauza onak hartu eta txarrak alboratzen badiugu, gauzak aldatuko ditugu.


Dena dela, ez da ahaztu behar gurasoen parte-hartzerik gabe ez dugula lortuko beste herrialdeetan lortu dutena. Hori azpimarratu nahi dut.

Era berean, Jainkoari eskerrak,

tendentzia politiko guztiak ados daude soluzio bakarra hezkuntza dela baieztetarakoan. Desadostasunak egon arren, horretan ados jarri gara eta Hezkuntza Plan Nazionala horren fruitu izan da.

## **Azaroko hauteskundeetan ondoren, Hezkuntza Plan Nazionalak jarraipenik izango al du?**

Hurrengo gobernuak denon parte-hartzearekin lortu dugun Hezkuntza Plan Nazionala errespetatu dezan lortu behar dugu. Plana ez baita politikoa, hezkuntza arloari dagokiona baizik.



# fernando cardenal

Hezkuntza ministroa sandinisten  
garaian



Helduak analfabetismotik uni-  
bertsitatera eraman genituen





Fernando Cardenal Hezkuntza ministro izan zen gobernu sandinistarekin 1984tik 1990era bitartean. Granada hirian jaio zen 1934ean eta bere bizitzako jardueren ardatzak pobrezia eta diktaduraren aurkako borroka izan dira. 70eko hamarkadan Frente Sandinistarekin hartu zuen parte borrokan. 80ko hamarkadan gobernu sandinistan jardun zen. 22 urteko militantziaren ondoren, 1994ean erretiratu zuen, Frente Sandinistaren barruko ustelkeria zela-eta.

Bera jesuita da. Jesusen Konpainian sartu zen eta betidanik jardun da behartsuei laguntzen. Azken 13 urtetan pobreekin bizi izan da, gertutik biziz haien egoera. Gaur egun Fe y Alegría mugimenduko zuzendari nazionala eta koordinatzaile zentrala da. Haur behartsuen hezkuntzaz arduratzen den mugimendua da berea. Era berean, Instituto Nicaraguense de Investigación y Educación Popularreko sortzailea eta zuzendaritza taldeko lehendakaria ere bada.

**Gobernu sandinistan Hezkuntza ministro izan zinen 1984-1990 bitartean. Zer aurkitu zuen gobernu sandinistak boterera iritsi zenean eta zer egin zen?**

Somozaren garaian hezkuntza gizarte sektore batzuetara soilik iristen den, aberatsengana. Nekazal guneetara ez zen iristen. Analfabetismoa %50 baino handiagoa zen, eta zenbait nekazal guneetan %90koa.

Sandinistekin hori aldatu egin zen. Nekazariak oso garrantzitsuak izan ziren iraultzan eta ordura arte inor ez zen beraiekin gogoratu. Hori dela eta, gu lehenengo egunetik hasi ginen nekazal guneei garrantzia ematen. Berehala hasi ginen alfabetatze kanpainarekin. Iraultzaren garaipenetik astebetera esan zidaten alfabetatze kanpaina diseinatzeko. 100.000 alfabetatzaile bildu genituen. Horietatik 60.000 hiriko unibertsitateko ikasleak ziren, eta mendirajoa ziren bizitzera. Analfabetismo indizea %52,9tik %12,9ra jaitsi zen.


Bestalde, eguneko bi gela eraikitzen hasi ginen, batez beste hiru egunetan Lehen Hezkuntzako eskola bat egiten zelarik.

Guk hezkuntza herritarrengana zabaldu genuen, eskolaurretik hasi eta unibertsitate arte, eta baita helduen alfabetatzea eta helduen hezkuntza ere. Helduak analfabetismotik unibertsitate era eman genituen.

**Hezkuntzaren printzipioak eta helburuak ere aldatu al ziren?**

Bai, noski. Ordura arteko ideologia kapitalista zen; egiten ari zen guztiaren oinarria gizakia erosle bihurtzea zen. Bizitzako ideala materiala zen, dirua edukitzea erosi ahal izateko. Hezkuntzaren zeregina haurrak gizartean integratzea zela esaten zen, baina gizarte kontsumista batean.

Guk hezkuntza berri bat bultzatu genuen, izpiritu zerbitzaria zuena, jarrerara, printzipio eta balio etiko eta gizartiarretan oinarritua. Erabat ezberdina zen aurreko hezkuntza somozista inperialistaren aurrean. Guk irakurtzen irakasteko jarrera bultzatzen ge-



Mentalitate  
neoliberal  
edukiko ez duen  
governua da  
egoera aldatzeko  
alternatiba. Eta  
demokrazian  
governatu behar  
da, hots,  
gehiengoarentzat,  
txiroentzat

Inongo  
herrialde ezin da  
garatu eta  
historian zehar  
ez da inoiz  
garatu  
hezkuntzan  
inbertitu gabe.  
Garapenaz hitz  
egiten badugu,  
goazen bada  
garatzera,  
hezkuntzan  
inbertitzera



nuen, eta ez lehiatzeko jarrera.

#### **Edukiak ere aldatu al ziren?**

Hezkuntza sistema eskolaurretik hasita eraldatu genuen, eta hezkuntzan oinarritutako eraldaketak egin genituen. Alde batetik oinarri zientifikoa eman genion, Somozaren garaiko eduki politikoa kenduta. Eta beste aldetik giza balioetan oinarritutako hezkuntza garatu genuen.

Urtero gradu bat eraldatuz joan ginen, helburuak, programak eta testuak aldatzen zirelarik. Urtero testu berriak egiten ziren.

Azkenean, ordea, 1990ean hauteskundeak galdu ondoren, eraldaketa bukatu gabe gelditu zen.

#### **Zer kritika egin izan zaizkio zuek egindako eraldaketari?**

Esaterako, testuak oso politizatuta zeudela. Egia da, agian pisu politiko gehiegi izango zuten, baina behintzat eraldatzen hasi ginen eta hori da garrantzitsuena.

Juan Bautista Arrien jesuitak "10 años de educación en la revolución" liburua idatzi zuen. Urte horietan egin zenaren analisisa egiten zuen eta baita

kritika ere. Hala ere, ez da gauza bera 1980an edo 81ean testu bat idaztea eta 89an aztertzea. Liburuko zenbait kritika guk geuk ere egin genizkion geure buruari.

#### **Orduko eta oraingo egoera konparatzen hasita, zer esango zenuke?**

Hezkuntza benetako hondamenera doala. Ez dago alfabetatze programarik ezta helduen hezkuntzarako programarik ere.

Bestalde, hezkuntzaren pribatizazioarako joera dago. Iraultza garaian doakoa zen eskolaurretik hasi eta unibertsitatera arte. Orain ordaindu egiten da maila guztietan.

#### **Baina ordainketa horiek borondatezkoak dira, ezta? Legeak ez al dio irakaskuntza publikoa doakoa dela?**

Bai, esan bai, baina errealitatean besterik gertatzen da. Irakaskuntza publikoak bi eredu ditu: eskola publikoak eta eskola autonomoak. Violetaren garaian hasi eta Alemanekin jarraitu zuen Umberto Bello Hezkuntza ministroak eskola autonomoak bul-

tzatu ditu. Helburua ikastetxeen pribatizazioa eta administrazioaren dezentralizazioa bultzatzea izan da, hau da, eskolaren eskuetan uztea hainbat erabaki. Eta zer ekarri du? Doakoak ziren ikastetxe asko kobratzen hastea.

Askok ezin dute ordaindu. Hasierako matrikulaz gain hileko kuota ordaindu behar dute, eta motxilak, uniformeak, kuadernoak eta beste hainbat gauza ere bai. Azkenean haur horiek eskolara ez joatea lortzen da.

### **Zein izango litzateke etorkizuneko alternatiba egoera alda dadin?**

Mentalitate neoliberal hori edukiko ez duen gobernu egotea. Azaroan egingo dira hauteskundeak eta horien aurreko garai honetan alderdien arteko aliantzak asko mugitzen ari dira. Nik ezin dut esan zer aterako den, baina alternatiba herriaz kezkatuko den gobernu izango litzateke, ustelkeriarik gabekoa. Izan ere, herrialde honetan ustelkeria gaitz endemikoa da eta gehiegikerietara iristen ari da. Guk nahi genuena bezalako aldaketa behar da, baina orain armarik gabe.

### **Oinarrizko ideologia eta pentsamendu horren aldaketarekin batera, zein neurri hartu beharko liriteke?**

Zenbat egin daitekeen ikusiz joan behar da, hori ere herrialdeko ekonomia egoeraren baitan baitago. Neurriak oso konkretuak izango liriteke eta zaila da orain zehaztea. Ikusi behar dena programa da, norantz jo nahi den, zer nahi den herrialde honentzat.

### **Nolako programa egingo zenuke zuk? Zein izango liriteke programa horren oinarriak?**

Oinarria izango litzateke printzipio absoluto bezala gizakia jartzea. Gizaki hori garatzerakoan denen ongizatea bilatu beharko litzateke, batez ere ahulenena eta txikienena. Ez da ahaztu behar demokrazian gobernatu behar dela, eta demokrazia denona eta denontzat den gobernu dela. Gehiengo pobrezian bizi bada, nik ezin dut gutxiengoarentzat goberna-

tu, ezta pentsatu ere, gehiengoarentzat gobernatu behar dut. Orduan, ahulenei mesede egingo dieten legeak egin behar ditut. Hori da etengabe-ko demokrazia.

### **Zenbateko garrantzia ematen diozu hezkuntzari gainontzeko arloak kontuan hartuta?**

Inongo herrialde ezin da garatu eta historian zehar ez da inoiz garatu hezkuntzarik gabe. Garapenaz hitz egiten badugu, goazen bada garatzera. Garapenerako Aliantza, Aurrerapenerako Aliantza eta abar egiten dira, eta hezkuntzan ez da ezer inbertitzen.

Ertamerikan gutxi garatutako herrialdeak gara, baina gure artean desberdintasun izugarriak daude. Costa Rican orain dela 100 hasi ziren hezkuntzan inbertitzen eta Nikaraguan,



berriz, ez. Muga pasa eta berehala i-gartzen da beste herrialde bat dela; atzeriko inbertsioa dago, eskulan kualifikatua eta prestatua... Guk ere aurrerapausoak eman genituen, baina gero berriz atzera egin genuen.



## Hizkuntzen psikopedagogian aditua naiz

Lizentziatura berria ezarri da aurten Mondragon Unibertsitatean

Hizkuntzen Psikopedagogia izeneko karrera berria eskaini dute ikasturte honetan Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Etorkizuneko gizarte eleaniztunaren eskari berriei erantzun nahi diete ikasketa horiek, eta bi urte barru hizkuntzen kudeaketan adituak diren profesionalak prest izango dira.

Hizkuntzen Psikopedagogia 2. zikloko Lizentziatura da, hau da, ikasketa hauek egingo dituzten ikasleak beste ikasketa batzuetatik etorriko dira, bereziki Pedagogia eta Psikologiako 1. zikloa egin dutenak edota Irakasletza edo Gizarte Hezkuntzan diplomatuta daudenak izango dira. Ikasle horiek hizkuntzen aniztasunak Euskal Herriko eskolan eta gizartearen oro har eragiten dituen egoerei erantzun egokia emateko prestatu nahi dira.

### Egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko profesionalak

Gaur egun, Euskal Herrian haur gehienak eleaniztun dira, eta ez elebidun, hirugarren hizkuntza oso goiz sartzen baita haurren curriculumean. Era ezberdinetara heltzen da bakoitza eleanitz izatera. Familia egoerak, ikasketa ereduak eta giro sozialak dira faktorerik eraginkorrenak. Egoera horiek, nahiz eta oso arruntak izan Euskal Herrian, oso konplexuak dira eta profesional prestatuen partaide-tza eskatu eta eskertuko lukete.

Euskararen egoera diglosikoak, bestalde, euskararen erabileran eta normalizazioan eragiten du ezinbes-

tean; egoera horri aurre egiteko hor ditugu hainbat eta hainbat hizkuntza politikaren neurri, ekimen eta proiektu. Ekimen horietarako guztietarako soluziobideak kanpotik ekarritako ereduetan aurkitzen saiatzen gara, baina batzuetan, kanpoko eredu horiek ez digutela balio ikusten dugu. Ondorioz, teoriak, metodologiak eta irudimenak lagunduta, geure proiektu, metodologia eta baliabide orijinalak garatzen ari dira Euskal Herriko zenbait bazterretan.

Horrez gain, eta etorkizunera begira jarritz, gaur egun hizkuntzen fenomenoarekin erlazionatuta hiru gertakari garrantzitsu ari dira azalarazten: migrazioak, globalizazioa eta Tekno-



logia bBo eleaniztasunaren kontzeptuan guretzat oso ezezagun diren zenbait hizkuntza eta kultura sartuko zaizkigu (txinera, Afrikako herrietatik etorriko zaizkigunak, japoniera, errumaniera eta abar). Globalizazioa dela eta, hizkuntza arrotz asko eta epe laburrean ikasi beharko ditugu estrategikoki. Eta Teknologia Berrien garapena dela eta, hizkuntzak ikasteko gaurko zenbait ohitura baztertu eta ohitura eta prozedura berriak garatu beharko ditugu seguruenik. Ondorioz, hizkuntzen inguruko zenbait kontzeptu edo hizkuntzak ikasteko eta irakasteko kontzeptuak aldaraziko dituzte fenomenook, modu batera edo bestera.

Hori dela eta, eskari berri horiei erantzun egokia emango dieten profesionalak beharko dira, eta hori da Hizkuntzen Psikopedagogiaren jomuga, hizkuntzen kudeaketaz arduratuko diren profesionalak formatzea. Profesional gaituak sortzea da karrera honen eginkizuna; hizkuntzekin harremanetan sortu ohi diren egoerei (gaur egun daudenei eta etorkizunean sortuko direnei) irtenbide duinak, desiragarriak eta errealak ematen jakingo duten profesionalak prestatzea.

Beraz, egoera eta erronka horiei profesionaltasunez erantzuteko pertsonak prestatu nahi ditu Hizkuntzen Psikopedagogiak.

Aurreikusten diren eskariak hainbat eremutan sortuko dira eta horietan lan egingo dute hizkuntzen psikopedagogok: eskolan, helduen irakaskuntzan, aisialdian, lan eremuan, gizartean, Teknologia Berrietan... Eremu horietan eta hizkuntzaren kudeaketaz ari garela, hainbat lan ezberdin egin ditzake: irakasle, aholkulari, planifikatzaile, ikertzaile...

Hizkuntzen psikopedagogoa profesional balioanizta izango da, hots, ikuspegi orokorra izan beharko du hizkuntzen kudeaketaz eta baita arlo konkretu batzuen ezagutza espezifikoaz (haurrak, helduak, lan mundua, gizartea...) eta jardueraz (ikerketak, irakaskuntza, orientabidea...) ere.

## Karreraren edukia eta antolaketa

Hizkuntzen Psikopedagogiak 150 kreditu ditu; horietatik %39 psikopedagogia arloari dagozkionak dira, %36 hizkuntzaren psikopedagogia arlokoak, %15 gaitasunen arlokoak eta gainontzeko %10 aukera askeko gaiak. Ohiko erritmoari jarraiki, bi kurtsotan burutu daitezke ikasketak, haatik, hiru kurtsotan egiteko aukera ere badago B erritmoa hautatuz. Ikasketak burutu bitartean praktikak egingo dira eskoletan, hezkuntza erakundeetan, udaletan, euskaltegietan, administrazioan, eskolaz kanpoko jardueraz arduratzen diren erakunde publiko zein pribatuetan... Oro har, hizkuntzen kudeaketarekin zerikusia duten erakunde edo proiektuetan.

Ikasketen amaieran proiektu bat egin beharko dute ikasleek. Praktikak egin bitartean diseinatuko da proiektua eta ikertuko den gaia eta aplikazio eremua ikasleen interes eta gaitasunetarako egokituko da. Modu anitzekoa izan daiteke berau: erakundeari balioa gehitzen diona, erakundearen eskaerari erantzuten diona, praktiketara doan ikasleak aurreikusten duena edota berak proposatzen duena.

## Zer diote ikasleek?

Lizentziatura berri hau hasi duten ikasleen iritzia jaso nahi izan dugu, azken finean eurek baitira hartzaileak eta arlo honetan profesionalak izango direnak.

Aurretik ikasketak ezberdinak eginak dituzte, batzuk lanean ari dira eta beste batzuk ez. Praktikak ere leku ezberdinetan ari dira egiten. Baina guztiek dute hizkuntzen psikopedagogia arloan interesa.

Hauek dira egin dizkiegun galderak:

**1- Zer dela eta hasi dituzu ikasketak hauek? Zer bilatu nahi duzu?**

**2- Zerekin aurkitu zara? Topatu al duzu nahi zenuena?**

**3- Zer iritzi duzu karreraren antolaketaz? Ikasgaiez? Irakasleez? Zer iruditzen zaizu bi erritmo eskaintza?**

**4- Zer aldatuko zenuke? Zer dago hobetzeko?**

**5- Praktikak egiten ari al zara? Non? Zer moduz?**

**6- Zertarako balioko dizute ikasketak?**

**7- Zer esango zenioke hasi nahi duen ikasle bati?**

Hona hemen lau ikasleren erantzunak, bakoitzaren esperientzian oinarritutako balorazioa.

### 1. ikaslea

1.- Irakasle ikasketak egina naiz, Gizarte Zientzien adarretik, hain zuzen ere. Nire garaian ez zegoen beste espezialitaterik. Hizkuntzaren mundua betidanik izan dut gogoko. Geroago euskaltegian hasi nintzen lanean euskararen irakaskuntzaz ezer jakin barik. Zentzu horretan, autodidakta izan naiz. Karrera honen eskaintza iritsizenean, pentsatu nuen momentu egokia zela eskarmentuz ikasitako hainbat eta hainbat gai ere formalean lantzeko.

2.- Beste unibertsitate eta irakaskuntza mota batekin egin dut topo. Era honek ez dauka zerikusirik nire garaikoarekin, ezta beste unibertsitate batzuetakoarekin ere. Bestalde, baliabide aldetik nahiko pribilegiatuak sentitzen gara, informatika kontuan, batez ere.

3.- Nik erritmo arina hautatu dut, denbora luzea eskatzen duten ikasketetan azkenean desmotibatu egiten naizelako. Dena dela, aukera edukitzea behar eta egoera desberdinei egokitzeko modua da. Momentuz, daukagun eskaintza anitza eta aberatsa da.

4.- Lanen arazoa dago. Lehen lauhilabetean gurdia lanez bete digute, eta askotan idia tiratzeaz nekatu eta gelditu egiten da. Horixe da arrisku nabariena. Badakigu lizentziatura mailako ikasketek lana eskatzen dutela gure aldetik, baina karrera honetako ikasle on perfila aintzat hartu be-

harko litzateke: ia denok lanean gabil-tza eta adinez helduak gara, horrek dakarrenarekin.

5.- Nire lanpostuan egiten ari naiz praktikak, euskaltegian. Nire lanean aplikatzeko gauzak ikasten ari naiz e-eta gustura nago. Zer gehiago eska dezaket?

6.- Nire lanean aplikatzeko balio-ko didate ikasketok, hizkuntza irakaslea bainaiz.

7.- Hizkuntzaren mundua asko gustatu behar zaio. Dena den, uste dut **nahi** badu, lehen urratsa emana dagoela.

## 2. ikaslea

1.- Lizentziatura bat behar dudalako, eskolak arratsaldez direlako, eta 2. zikloko karrera izanik, bi-hiru urtetan egin daitekeelako, batez ere. Dena dela, itzultzaile-interprete naiz lanbidez eta hizkuntza kontuen gaineko kezka bat badut euskaldun (elebidun) guztiok bezala, nik uste, eta horrek ere eragin dit.

Era berean, lehen ere ibilia naiz Eskoriatzan ikasten eta horrek ere konfiantza eta lasaitasun handia eman dit. Ez baita ezagutzen ez duzun toki batean hastea bezala. Aurreko ezagutzelana egina neukan hemen, nahiz eta joan deneko 12 urte hauetan asko aldatu den gure garaiko Irakasle Eskola hura, baita fisikoki ere, orain hartu duten eraikin dotore horrekin-eta.

Zer bilatu nahi dudan? Bada, lankideen eta lagunen artean askotan hitz egiten dugu hizkuntzen gainean, batez ere euskararen gainean: zer egin behar litzatekeen aurrera ateratzeko eta abar. Baina, Reala zulotik ateratzeko zer egin behar litzatekeen bezalatsu aritzen gara askotan: aliritzira, sentimenduz eta datu zehatz askorik gabe. Karrera honek informazio zabal eta batik bat zehatza emango dit, ikertzeko eta sakontzeko bidea, askotan egiten ditugun galdera horiei hobeto-xeago erantzuteko edo ideia osatua- goa izateko.

2.- Karrera berria da, izena ere ilun samarra du eta ez nekien zer aurkituko nuen; baina, oso gustura nago aur-

kitu dudanarekin. Sentimenduak eta irudipenak datuez janzteko bidea aurkitu dut, oinarri bat. Bestetik, ikusten da munduan toki askotan dagoela gurearen moduko kezka eta eztabaida. Gauza horien gaineko ikerketa, ordea, kontu berria da toki gehiengutan, eta hemen berriagoa oraindik. Baina, emaitza harrigarriak ikusten dira askotan.

3- Antolaketa oso ona da niretzat, erabakiorra. Nik, eta eskolako gehientsuenok, lan egiten dugu, eta eskolak goizez balira, nik behintzat ezin izango nukeen karrera egin, eta ezta bi erritmo izan ez balira ere. Nik hiru urtetan egiteko erritmoa hartu dut, bi urtetan ezin izango nuelako eskoletara joan, eta niretzat funtsezkoa da eskoletara joatea, irakaslearen azalpenetatik eta eskolako eztabaidetatik askoz samurrago eta gehiago ikasten da-eta paperetik baino.

Irakasleak, bestetik, oso gertu sumatzen ditut hemen. EHUn ere ibilia naiz eta han hemen baino askoz urrutiago zeudela iruditzen zitzaidan. Beste alde batetik, Kataluniatik ere etorri zaizkigu irakasleak eta hori ere oso onairuditzen zait, luxua, beren gaian oso onak diren irakasleen tesiak beren ahotik jakiteko bidea ematen digulako. Hori eta erritmo kontuarena izango dira, beharbada, eskola honen malgutasun handia garbierakusten dutenak. Eta esan beharrik ez dago balio handiko gauza dela, edozein ar-

lotan ere, malgutasuna izatea.

Iruditzen zait irakaslearen neurrira egindako karrera dela gurea.

4.- Lau hilabete besterik ez daramatragu eta goiz izango da oraindik gauzak aldatzen hasteko. Gauza guztiei utzi behar zaie denbora beren bidea egin eta fruituak emateko. Eta, izatekotan ere, orduan aldatu behar da aldatu behar dena. Hala ere, badakigu askotan zer gertatzen den karrera bat ikasten ari garenean: epeak izaten dira, azterketak... eta horietara errenditu behar dugu. Hala, batzuetan gertatu zait lan bat-edo egun jakin baterako bukatu beharra izan eta nik nahi adina sakondu edo goxatu ezina lana. Baina, beste gauza batzuekin ere gertatzen da hori, eta garrantzitsuena ideia nagusi batzuekin gelditzea eta informazioa non bil daitekeen lokalizatzea izaten da, sakontzeko eta goxatzeko denbora gero ere bai baitago, gogo handia izanez gero.

5.- Nik hiru urtean egiteko erritmoa aukeratu dut eta, beraz, ez naiz ari praktikak egiten. Datorren urtean egingo ditut.

6.- Pil-pilean dauden gai askoren berri zehatzagoa eta objektiboagoa izateko, dudarik gabe.

7.- Hizkuntza kontuak-eta gustatzen baldin bazaizkio, toki ona daukala hemen pil-pilean dauden gaiei buruzko gauza asko ikasteko, informazio franko eskuratzeko, eta baita kontu horiek ikertzeko eta sakontzeko bidea ere.



### 3. ikaslea

1.- Lehen Hezkuntzako ikasketak burutu ondoren, hizkuntzei dagokienez hutsune nabarmean zegoela-eta, interesgarria iruditu zitzaidan honako ikasketa hauek burutzea. Gaur egunean Euskal Herrian egoera diglosi-koa pairatzen dugu, eta hori dela-eta, hizkuntzek bere tratamendua izan behar dute. Bestalde, gure hizkuntza den euskara kinka larrian daukagu eta indartzeko eta hainbat esparrutan presentizateko lan asko dago egiteke. Azken finean, horri guztiari dagokionez, formakuntza izatea bilatzen dut gaurdanik eta etorkizunean ere aurre-rapausoak eman ahal izateko.

2.- Hainbat ikasle bildu gara eta bakoitzak esperientzia eta jakintza maila anitza dauka. Horrek asko aberasten du gelako partaidetza. Horri dagokionez, oso pozik nabil, bakoitzak dituen esperientzietatik abiatuz, eta irakasleen laguntzaz, gauza interesgarri asko irteten baitira.

3.- Karrera guztiontzat berria izanik, antolaketa mailan ere hobetzeko gauzak badirela esango nuke, baina orokorrean ongi antolatuta dagoela iruditzen zait. Leku guztietan bezala, gure arazotxoak izan ditugu lehenengo lauhilabetekoan (lan mordo dela-eta...). Hala ere, ikasgaiak interesgarriak direla iruditzen zait, betiere lauhilabetekoak labur gelditzen direla-eta, bakoitzak bere kasa etxean, lantokian... jorratzeko aukera izanik.

Bestetik, bi erritmo eskaintzea primeran dagoela deritzot, hain zuzen guztiok ez batitugu aukera berdina izaten ikasketak burutzeko orduan. Bereziki karrera hau 2. ziklokoa izanik, jende ugari lanean ari da, eta horiek ere aukera izatea interesgarria da. Nik neuk A erritmoa hautatu dut horrela egiteko eragozpenik izan ez dadalako. Gainera, sarritan luze samar egiten da leku berebete hainbeste urtez ikasten aritzea, talde berdinarekin, irakasle berdinekin...

4.- Nik neuk argi daukat praktiken egonaldia aldatuko nukeela. Lehe-

nengo urte honetan bi astetako praktika aldia besterik ez dugu izan, eta ez du astirik ematen aurrean duzuna eza-gutzeko eta horren arabera karrera bukaeran egin beharreko proiektuaren irudikapena argitzeko.

5.- EMUNen egin ditut nire praktikak beste bi gelakiderekina batera. Oso jende jatorra aurkitu dut eta gustura baino gusturago ibili naiz. Bestalde, EMUNi dagokionez, asko ikasi dudalakoan nago, hau da, informazio anitz jasot dut, baina hala ere, lehenago aipatu bezala, denbora gehiagoz egotea gustatuko litzaidake, lantoki, ikastetxe... bakoitza mundu bat da eta denbora eskatzen du ezagutzeak. Hala ere, argi utzi nahi nuke EMUNekoak prest agertu direla edozein momentutan laguntza emateko.

6.- Etorkizunean Hizkuntzen Psikopedagogian prestakuntza izanik, ikasketa horiek mundu horretan lan egiteko balioko didatelakoan nago. Eta ez hori bakarrik, nik neuretzako ikasteko ere bai.

7.- Ikasketa horiek egitera animatuko nuke. Hizkuntzalaritzan, elebitasunean, psikologian... formakuntza zabala jasotzeko parada eskaintzen du karrera honek, eta arestian aipatu bezala, Euskal Herrian bizi dugun hizkuntz egoera dela-eta, Hizkuntzen Psikopedagogia jorratu beharreko arlo interesgarria dela uste dut.

### 4. ikaslea

1.- Pedagogiako ikasketak bukatu eta 4 urte atzerrian bizi izandakoa naiz. Behin Euskal Herrira etortzeko garaia zela sentitzean, hemen lana bilatzeko aukera anitzak nituela ohartu nintzen. Horregatik, ikasketa hauen berri izan nuenean interesgarria iruditu zitzaidan, ama hizkuntzaz gain beste hizkuntza batzuk ere ikasi behar izan ditudalako, eta hizkuntza horien jabekuntza eta abar nola gertatzen diren ezagutzen lagunduko zidala uste nuelako. Aldi berean, ikasketak bukatu ondoren lana aurkitzeko aukera gehiago izango nituela uste nuen.

Nik egindako ikasketak eta bizitza pertsonala kontuan izanik, nire formakuntza lagunduko nauen bidea edo tresna izatea bilatzen dut ikasketa hauekin.

2.- Gustura nago topatu dudana-rekin, baina onartu beharra daukat hasiera batean kosta egin zitzaidala unibertsitatearen ezaugarri batzuetara moldatzea, ni unibertsitate publikotik bainator.

3.- Nire ustez karrera ongi antolatuta dago, nahiz eta zenbaitetan begi bistan geratu ikasketak berriak direla; hala nola irakasleek ikasgaiak emateko orduan, arazo teknikoak ordena-gailuekin... Ikasgaiak oso interesgarriak dira eta irakasleak profesionalak. Aproposa deritzot bi erritmo eskaintzea, jendeak aukera gehiago izan dezan. Nik neuk A erritmoa aukeratu nuen, lanean ez nengoelako matrikulatzerako orduan eta 2:30etik 8:00etarako ordutegia ongi zetorkidalako.

4.- Alde batetik ikasketak oso garestiak iruditzen zaizkit, 39.000 peze-ta hileru. Ez dut uste pertsona guztien aukeran dagoenik ikasketa hauek burutzea, nahiz eta bekadun bezala lan egiteko aukera badagoen. Bestalde, zenbait irakasleren ebaluatzeke modua ez zait batere aproposa iruditu.

5.- Bai, praktikak egin ditut bi astetan zehar Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxe publikoan eta esan beharra daukat primeran konpondu naizea, bai irakasleekin zein ikasleekin. Pena da praktikak bukatu izana.

6.- Suposatzen dut etorkizunean lana bilatzeko, hizkuntzen inguruko ikaskuntza-irakaskuntza prozesua hobeto ulertzeko, euskararen inguruko errealitatea zein den ezagutzeko eta honi bultzadatxo bat emateko.

7.- Edozein animatuko nuke ikasketa hauek burutzera, baina matrikulatu aurretik ikasketen inguruko informazioa jasotzea premiazkoa ikusten dut, jende askok ez baitu argi izaten ikasketak beraiek zer eskain diezaioketen.

# Ekarpena



## Ramon Flecha: "Ikaskuntza komunitateak eskolari komunitate zentzua ematen dio, eta momentu honetan hori da hezkuntza sistemaren krisia gainditzeko bidea"

"Desberdintasunak gainditzeko hezkuntzari buruzko jardunaldiak" burutu dira Bilbon Hezkuntza Sailak, EHUk eta Bilboko udalak antolatuz. Hezkuntza esparruaren desberdintasunak gainditzeko laguntzen duten hezkuntza teoria eta proposamenak ezagutzeko aukera izan da parte hartu duten hainbat hizlariren eskutik.

Alde batetik informazio gizaritari eta berak sortzen dituen beharrei eta erronkei buruzko azterketak aurkeztu dira. Bestetik, hezkuntza esparruan sor daitezkeen arazoei (eskola porrota, gatazken gehitzea...) aurre egiteko naziokartan dauden teoria eta praktikak izan dira hizpide. Eta azkenik, gaur egun hezkuntza esparruan

sortzen ari diren gizarte aldaketari eta beren ondorioei buruzko eztabaidak burutu dira.

Unibertsitateko zenbait irakaslerekin batera hainbat ikas-tetzetako esperientziak ezagutzeko parada izan da, hots, Ikaskuntza Komunitateetako esperientziak.

Besteen artean, Ramon Flecha Bartzelonako Unibertsitateko irakasleak "Berdintasun heziketa informazioaren gizar-tean" gaia aurkeztu zuen. Informazioaren gizar-tearen ezaugarriak aintzat hartuta, hezkuntzak nolakoa izan behar duen aipatu zuen. Gauza nabaria da gizar-tea aldatzen ari dela, eta aldateta horren aurrean Ikaskuntza Komunitateak garatzea ikusten du egokien berak.

Zure hitzaldia entzuten egon ondoren, zeuk aipatu bezala, egungo gizar-tea aldatzen ari da, hau da, industri gizar-tetik informazioaren gizar-terera goaz. Hezkuntza sistemak erre zeresan handia du aldateta horretan, egoera horretara egokitu beharrean aurkitzen delarik. Informazioaren gizar-tea honetara moldatzeko zuk "Ikaskuntza Komunitatea" proposatzen diguzu. Laburbilduz, esango al zeniguke zertan datzan Ikaskuntza Komunitate hori?

Ikaskuntza Komunitatearen abiapuntua zera da: eskola porrota eta elkarbizitzako arazoak gainditzeko modu bakarra irakasleria, ikasleak, familiak, elkarteak eta komunitateko bolondresak elkarrekin lan egitea da. Pertsona horiek denek talde bat osatuz eta proiektu komun batean bilduz, geletan sartuko dira irakasleari laguntzeko. Horrekin lortzen dena da ikasleak eguneroko heziketa prozesutik ez baztertzea, beren ikaskuntza instrumentala indartzea, eta era berean, arazo horiek gainditzeko elkartasuna garatzea beraien artean.

Egun gizar-teko hainbat sektore



sozial baztertuta geratzen ari dira. Horren aurrean, eskolak ez du ikaskuntza instrumentalik. Ondorioz, baztertutako ikasleen artean maila oso baxua dago, eta ez dute nahikoa baloratzen eskola erakundea bera. Orduan, ez dira eskolara joaten edota diziplina mailako arazoak sortzen dira. Familiak beraiek ere ez daude motibatuak ikastetxean bertan burutzen denarekin.

Ikaskuntza Komunitateekin ikaskuntza instrumentala handiagotu nahi da, hau da, ikasle guztiak informazioaren gizarte horretan ezinbestekoa den guztia ikasi behar dutela onartzetik abiatzen dira. Adibidez, EAEn orain 10 urte dituzten haurrek eta 2020. urtean 30 izango dituztenek, euskara, gaztelania eta ingelesa menderatu beharko dituzte.

**Zer egin daiteke, orduan, haur horiek guztiak biharko gizartean ezinbestekoak izango diren hiru ikaskuntza horiek ikasten joan daitezten?**

Horretarako, beharrezkoa da 20 bat ikasle dituen irakaslearekin batera beste hiru edo lau pertsona heldu izatea, hauek ere ikasleari beren ikaskuntza instrumental horretan lagunduko baitie. Modu horretan, familiek ikusten dute eskolan egiten denak zerbaitetarako balioko diela beren seme-alabei biharko egunean. Horrela, eskola errefusatzetik bertan parte hartzera pasako dira, eskolan irakasten diren ikasgaien zenbait gaien inguruan interesa edukitzera iristen direlarik. Horrela, familia eta ikasleak batera ikasten duteneko prozesuak garatuko dira

Honek guztiak eskolari komunitate zentzua ematen dio, eta momentu honetan hori da hezkuntza sistemen krisia gainditzeko bidea.

**Oker ez banago, eskola komunitate bihurtzen da, eta komunitate horretan elkarrekintza sortzen da haur eta helduen artean.**

Bai, hala da. Kontzeptu horiek

guztiak gaurko Gizarte Zientzietatik jasotzen ditugunak dira, eta ez hezkuntzan aplikatu ohi diren teoria atzerakoietatik hartutakoak. Gaurko Gizarte Zientziak elkarrekintzan oinarritzen dira, dena guk besteekin daukagun elkarrekintzaren arabera dela azpimarratzen dute. Orduan, haurrak eskola porrota eta elkarbizitzako arazoak gaindi ditzen, beharrezkoa du pertsona helduekin elkarrekintzan egotea, eta pertsona heldu horiek berekin ados egotea. Elkarrekintza horren pean dago informazioaren gizarteari dagokion ikaskuntza eta elkarrekintza hori bultzatuz ikaskuntza hori lortuko da.

**Teoria alde batera utziz eta zure esperientzian oinarrituz, zer ondorio ateratzen duzu Ikaskuntza Komunitateei dagokienean?**

Nik ateratzen dudana lehenengo ondorioa zera da; Ikaskuntza Komunitate izenez ezagutzen ditugun ho-

**“Ikaskuntza Komunitatearen abiapuntua zera da: eskola porrota eta elkarbizitzako arazoak gainditzeko modu bakarra irakasleria, ikasleak, familiak, elkarrekin eta komunitateko bolondresak elkarrekin lan egitea da”**



riek, izen horrekin edo beste batekin, asko zabaldu eta garatuko direla munduan zehar. Europar Batasunak dagoeneko aitortu du eskola porrota gainditzeko bide bakarra praktika mota hori dela, eta aldi berean, beste herrialdeetan praktika horiek aurrera eramateko bultzatzen ari da. Ziur nago, beraz, European horrelako milaka esperientzia aurkitzera iritsiko garela.

**Entzun dugunez, esperientzia horiek oso emaitza onak izan dituzte.**

Beste proiektu batzuen emaitza falta dela eta, horrelako esperientzia batzuek emaitzak izatea beti da pozgarria, nik nahiko nituzkeen emaitzak ez badira ere. Gainera, administrazioak ere beren interesa jartzen ari dira proiektu horietan. Eusko Jaurlaritzak, esaterako, proiektu zehatz batean esku-hartu du. Bertan irakasle bat eskaini zaio institutu bati eta institutuak erabakiko du irakasle hori zailtasunak dituzten haurrekin utzi edota geletan sartu.

Dagoeneko badaude horrelako zenbait proiektu, zeinak administrazioaren baliabideekin ari diren aurrera eramaten.



**Orduan, dirudienez, gobernua honen guztiaren jakinaren gainean dago.**

Bai, momentu honetan gobernu guztiak dute proiektu horien berri. Gertatzen dena da gobernuak esperientzia horien atzean daudela, eta edozein modutara ere emaitzak ikusi nahi dituztela.

**Hitzaldian batek baino gehiagok komentatu du aurrekontu falta dagoela. Gobernuak proiektu horien atzean egonda, nola da posible arazo hori egotea, ezin al da gainditu maila batean behintzat?**

Lehenik eta behin, onartu behar da gobernuari esperientzia horiek interesatzen zaizkiela, egun hezkuntza momentu zailak igarotzen ari baita eta irtenbidea, hasiera batean, Ikaskuntza Komunitateak baitira. Nire ustez, beraz, gobernuak beren aurrekontuak jartzen ari dira. Aldiz, beste gauza bat da behar den aurrekontua edozein gobernuak hezkuntza mundura zuzentzen duen dirulaguntza baino askoz ere ere handiagoa dela. Horrekin esan nahi dudana da hasiera hutsean gaudela oraindik. Nire iritziz, Hezkuntzako Sailak, eta orokorrean go-

bernuek, aurrekontu horiek eskaini ahal izateko, lehenengo dirua eduki egin behar dute. Edukiz gero emango lukete. Hala ere, dirua emateko gizar-teak kontzientziatua egon behar du, eta hori da benetako arazoa.

**“Guk sendatzen dugun metodoa aplikatzen dugu. Zenbat eta gehiago aplikatu, orduan eta gehiago sendatuko dugu”**

**Nola kontzientzia dezakegu gizartea?**

Bada, esperientzia horiez baliatuz. Esperientzia horien bitartez kontzientziatzen da gizartea. Arrazoi dute, alde batetik, aurrekontu falta dagoela esaten dutenean, baina bestetik, egia da hezkuntzaren hobekuntzarako gauza ugari egiten ari direla ere; esaterako, aipatu esperientzia horiek. Europan lehenengoz Euskadin hasi ziren, dagoeneko lau urte daramatzatelarik. Egun, Ingalaterran, Katalunian, eta abar ere antzeko praktikak egiten ari dira.

Euskadin, beraz, dagoeneko badago talde bat, Ikaskuntza Komunitateko lan talde bat, alegia. Prozesuak geldoa izan behar du, hasieran lau ikastetxerekin hasi ginen, eta pixkanaka 12ra pasako gara. Baina bat-batean lautik laurogeira pasatzea gauzak azkarregi egitea litzatekeela iruditzen zait. Askoz ere hobea da gauzak lasai eta patxadaz egitea.

Guk Ikaskuntza Komunitateen metodoa aplikatzen dugu eta gero ondoriak ikusten ditugu. Azken batean, guk sendatzen dugun metodoa aplikatzen dugu. Zenbat eta gehiago aplikatu, orduan eta gehiago sendatuko dugu.

**Badakazu beste esperientzia batzuren berri ala hauek bakarrik ezagutzen dituzu oraingoz?**

Gure zentroa internazionalki lan egiten duena da, eta momentuz, asko bidaiatu badugu ere, esperientzia horiek bakarrik izan dira aurkitu ditugunak, ez dugu ikusi beste eredurik.

**Ikaskuntza Komunitateak dira, orduan, alternatiba bakarrak egungo hezkuntza arazoei aurre egiteko eta informazioaren gizartera egokitzeko?**

Momentuz bai. Hala ere, beste ereduren bat agertuko balitz eta egokia izango balitz, noski aplikatuko genukeela, horretara guztiz zabalik gaude. Baina, esan bezala, oraingoz esperientzia hauek soilik ezagutzen ditugu.

II. hik hasi Udako

Topaketa

Pedagogikoak

Momentuz finkatuta

dauden ikastaroen

zerrenda aurkezten

dizuegu



# Berriak martxoa

# Argitalpenak



## Zor zorria

Elkartasunerako Heziketa taldea  
Alboan

Argitalpen hau pobretutako herrialdeek duten kanpo zorria ezabatzeko eskatzearen munduko hainbat herrialde eta hiritan sortu den mugimenduaren ekarri xume bat du. Bertan kanpo zorraren inguruan lan egiteko proposamen didaktikoak mahaigaineratzen dira, eta hainbat ezagupen planteatzen dira: zorpetzea zer den, norengan duen eragina, nor den noren zordu...



## Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua

Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Emaisia

65 orr. (euskaraz eta gaztelaniaz)

Eskuliburu honek elkarte sozio-kulturaletan eta hezkuntza ez-formalean ari direnentzat jarduera hezkidetzailerako garatzeko proposamen bat izan nahi du. Gizon eta emakumeen arteko Aukera Berdintasunaren aldeko lanean lagungarri izateko asmoz burutu dute lana.



## BAT soziolinguistika aldizkaria

37 zka.

2000ko abendua

SEI elkarte

2000ko azaroaren 24an SEI elkarteak antolaturiko Sinposiumean azaldutakoaren mamia jasotzen da aldizkari honetan. Sinposiumak bi aro utzi ditu: bata Euskal Linguistika Institutua sortzen, SEI elkarte "gaia jorratzeari ekin ziotenekoa da, ale honetan jasotzen dena, alegia; bestea, berriz, aurreko ideiarri hasiera eman go dio ondorengo hilabeteotan.



## Durango Durango

Juan Kruz Igerabide  
eta Mikel Valverde

Elkarlanean

58 orr.

Liburuxka honetan egileak Durangotik Durangorako bidaia egiten digu. Liburu honetako kontaketaren pertsonaia nagusia durangar oilo-hezitzaile bat du, bere bizitzaren ibilbidea deskribatuko delarik. Irakurlan hau gaztetxoei zuzendua dago batik bat.



## Nazioa eta hezkuntza-sistema espainiarraren sorrera

Iñaki Zabaleta Imaz

UEU

147 orr.

Orain arteko nazionalismoaren historiografiak bigarren mailan utzi izan du hezkuntza eremuko analisia. Lanaren xedea. Nazionalismoaren inguruan ez da ezinbestekoa den analisirik egin eta lan honek hezkuntza politikaren arloko fenomeno hori era ezohiko moduan berrirakurtzearen beharra agertarazi nahi du lan honek.



## Giza anatomia eta fisiologia

Batzuren artean

Ibaizabal

423 orr.

Osasuna egungo gizartearen kezka handienetakoa izanik, liburu honek gizonaren eta emakumearen gorputzaren azterketa egin nahi izan du. Jakintzagai honetan Anatomia eta Fisiologia bata bestearen ondoren ikasten diren bi diziplina ezberdin bezala agertzen zaizkigu. Gai honen inguruan badirudi, gaur egun hutsune nabarmena dagoela eta hori betetzeko asmoa du lan honek.

# Erne! Badatoz II. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak

Aurten ere ikasturtea bukatu eta udari hasiera ona eman diezaiogun elkarrekin egoteko eta ikasteko topagunea eskaintzera gatoz: II. hik hasi Udako Topaketa Pedagogikoak. Uztailaren 3, 4 eta 5ean burutuko dira Donostiako Irakasle Eskolan. Iazko ereduari jarraiki, goizez ikastaroak izango dira, eta arratsaldean saio libreak.

Ikastaroei dagokienez, eskaintza zabala bezain zehatza luzaten dizuegu. Ikastaro anitz eta konkretuak izango dira, eta oro har, bost gairen inguruan kokatutakoak: teoria, informatika eta teknologia berriak, zeharlerroak, espresioa/komunikazioa, euskara/hizkuntzak eta bestelakoak.

Oraindik gauzak xehetzen eta zehazten ari bagara ere, zenbait ikastaro finkaturik dauzkagu. Honako hauek, hain zuzen ere:

**Teoria:** Goldberg

**Informatika eta Teknologia Berriak:**

- Web orria lantzen
- Aldizkari elektronikoa
- Klik. Multimedia hezkuntza e-kintzak sortzen
- Ipuin multimedialak sortzen. "Fabela" proiektua.



*laz bezala, aurtengo topaketek gure arteko topagune izan nahi dute.*

## **Espresioa/komunikazioa:**

- Musika hezkuntza berezian. Aschero sistema.
- Plastika/antzerkia
- Eutonia
- Munduko dantzak eskolan
- Soinketa

## **Euskara/hizkuntzak:**

- Haur literatura eskolan
- Hizkuntza idatziaren inguruko ikastaroa
- Literatur txokoa: Lizardi, Mirande, Saizarbitoria

## **Bestelakoak:**

- Psikomotriz praktikaren adinkako analisia
- Euskaraz jolasten
- Heriotzaren ukapena hezkuntzan
- Matematika Lehen Hezkuntzan
- Eskola eta familia elkarlanean
- Gelako gatazken ebazpena
- Talde dinamika eskolan
- Hezkuntza berezia
- Etorkinen integrazioa



## Mondragon Unibertsitatearen Irakasle Eskolak 25 urte betetzen ditu

Mondragon Unibertsitatearen Irakasle Eskolak (gaur egungo Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea) 25 urte beteko ditu aurten. Izan ere, 1976an sortu zen, euskal eskolak artean zituen premia larriari erantzun guran.

Urte hauetan 1.500 gaztek lortu dute irakasle diploma Eskoriatzako Irakasle Eskolan. Horiez gain, ikastoletan edo herri eskoletan titulurik gabe ziharduten beste 700 irakaslek ere eskuratu dute titulua eskola honetan.

1997an Eskoriatzako Irakasle Eskola Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultate bihurtu zen. Irakasle ikasketez gain, Humanitateak-Enpresa lizentzia eta Hizkuntzen Psikopedagogia bigarren zikloko lizentzia ematen dira gaur egun. Baita masterrak ere. Guztira 750 ikasle ari dira ikasten Humanitate Fakultatean.

25. urteurrena dela-eta, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hainbat ekitaldi prestatu ditu, egindako ibilbidea ospatzeko.

**Martxoaren 15ean**, prentsaurrea egingo da Eskoriatzan, 25. urteurrenaren berri emateko.

**Martxoaren 29-30ean**, jardunaldiak: "Mundu Eleanitza" eta "Hezkuntzaren Funtzio Soziala". Felix Marti Kataluniako

UNESCO Etxearen lehendakaria etorriko da. Baita Madril, Bartzelona, Andorra eta Aostako espezialistak ere, Euskal Herrikoekin batera. 11 hitzaldi eta bi mahai inguru egingo dira, guztira, denak Humanitate Fakultatean.

**Martxoaren 30ean**, ekitaldi berezia egingo da, 25. urteurrena ospatzeko. Arratsaldeko 18:30etan omenaldia egingo zaie Irakasle Eskolak izan zituen lehen lehendakari (Juan Mari Otaegi), lehen zuzendari (Felix Ormaetxea) eta lehen langile erretiratuari (Mertxe Bolinaga). Debagoieneko ikastetxeetako zuzendariak hantxe izango dira, MUko irakasle eta agintariekin batera.

**Apirilaren 5ean**, jardunaldiak: "Erligijoa eta XXI. mendea". Punta-puntako bi hizlari izango dira: Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain ohia eta Frantziako Gaillot gotzain ospetsua. Nola urlertzen duten erlijioa azalduko dute, ondoren elkarriketan aritzeko.

**Maiatzaren 10-11n**, jardunaldiak: "Etika eta Enpresa: Enpresa Proiektu Etikoa eta Etika Proiektu Enpresariala". Hainbat hitzaldi eta mahai inguru egingo dira. Jon Sarasuak eta Lankiko partaideek "Testigantza" proiektuaren berri emango dute.

**Maiatzaren 26an**, Eskoriatzako Irakasle Eskolako ikasle eta irakasle ohien elkarretaratzea egingo da.



**Ikastolen  
Elkartearen jardunaldiak emankorrak  
izan dira**

**Ikastolen Elkarteak antolatutako VIII. Jardunaldi Pedagogikoak emankorrak izan dira antolatzaileen hitzetan. Euskal Herri osoko 700 langilek hartu dute parte irakurketa eta idazketa prozesuak aztergai izan diren hiru egunetan. Antolatzaileak gustura agertu dira, eta baita partaideak ere, adituei galderak eta iradokizunak egin ahal izateko eduki duten aukera eta modua azpimarratu dituztelarik.**

## Gipuzkoa Haur Kantari Txapelketa hastear dago

Euskal Herriko zazpi probintzietan burutzen den txapelketa honen Gipuzkoako lehia abiatzear dago. 2001. urteko Gipuzkoako Haur Kantari Txapelketa hiru ekitalditan gauzatuko da:

- **Azkoitian martxoaren 31an**, Baztartzo Aretoan, 17:30ean (kanporaketa).

- **Villabonan apirilaren 7an**, Gurea Zinema Aretoan, 17:30ean (kanporaketa)

- **Tolosan maiatzaren 6an**, Leidor Aretoan, 11:30etan (finala).

Izenaemateko azkeneguna: martxoak 20

### Informazio gehiagorako:

Euskal Kantuzaleen Elkarte  
Donibane kalea z/g - Oiartzun  
Telefona: 943 49 38 42

Mugikorra: 656-70 84 46

e-posta: kantuzale@euskalnet.net

## Badator Korrika 12

**Martxoaren 29an** abiatuko da **Korrika 12** Gasteiztik eta **apirilaren 8an** iritsiko da Baionara. 9 egunez gelditu gabe Euskal Herri osoa zeharkatuko du "mundu bat euskara bilduz".

XXI. mendearen atarian gauden honetan, munduaren globalizazioaz hainbeste hitz egin eta idazten den garai honetan, berebiziko garrantzia du munduan diren hizkuntzen eta kulturen iraupenak.

Korrikak euskarak eta euskal kulturaren iraupenak duen garrantzia azpimarratu nahi du. Horrek herritarren ahalegina eskatzen du; euskal kulturak zabaltzen duen munduaz jabetzea, euskal kulturaren murgiltzea.

**Anima zaitetz eta har ezazu parte!  
Mundu bat euskara bildu!**

# Paulo Freire

Gaur egungo gizarteko pentsamendu bakarraren aurrean, gizarte zientzietan joera kritiko bat sortuko da. Joera horrek neoliberalismoak eta postmodernitateak gizakiari ezartzen dizkion murrontzak salatzzen ditu. Ikuspegi kritiko horren jarraitzaileak ugari dira eta horien artean, pedagogian, hezkuntza kritiko hori gorenetik ukituko duena autore hau izango da.

Pedagogo ospetsu honek duela lau urte utzi bagintuen ere, oraindik bere pentsamendu eta ideiek izugarrizko oihartzuna dute hezkuntza munduan. Paulo Freireren hezkuntzak Zapalduen Pedagogia izan du abiapuntu, bere testuinguruko kultura kolonizatuei zuzendua egon delarik. Dena den, egungo europar hezkuntzak bere iturrietatik edan ahal izan du, eta horretan jarraitzen du autore honen zenbait e-karpen praktikara eramanez.

## Biografia

Paulo Reglus Neves Freire Rezife (Pernambuco hiria, Brasil) izeneko herrixkan jaio zen 1921. urtean. Bera bizi zeneko testuinguru soziala txirotasun handikoa izateak erabateko eragina izango du bere ideiak aurrera eramateko orduan. Rezifeko herrian bertan burutuko ditu oinarritzko ikasketa eta unibertsitate mailako formakuntza (Zuzenbide Fakultatean).

## Leire Tejados

Gizarte Heziketan diplomatua eta Pedagogiako ikaslea



1944. urtean Elza Maia Costa de Oliveirarekin ezkonduko da. Bere emaztea Lehen Hezkuntzako irakaslea izango da eta honek bultzatuko du kulturaz eta hezkuntzaz arduratzera, pixkanaka alfabetatze programak (1963) garatzeari ekingo diolarik.

Aipaturiko hezkuntza esperientzia hori, ordea, bertan behera geratuko da 1964ko Estatu militarren kolpea dela

eta. Ondorioz, 1964-69 urte bitartean Txilen erbesteratuko da.

1969an UNESCOko kide izendatuko dute, Harvardeko Unibertsitatean (E-EBBetan) eskolak emango dituelarik. 70eko hamarkadan Afrikako zenbait herrialderi aholkuak ematen ibiliko da. Aldi berean, alfabetatze programak gauzatzeko ditu, zenbait lurraldetako berregituraketa nazionala bultzatu nahirik.

1980an Sao Paulora itzuliko da eta 1986an bere emaztearen heriotzak eragin izugarria izango du berarengan. Kolpe gogor horrek lur jota utziko bado ere, 1988an bere lagun mina den Nita Araujorekin ezkonduko da. Beranduago, beste poztasun bat ere etorriko zaio; bera sortzaileetariko bat izango den "Langileen Partiduak", 1989an udal hauteskundeak irabazten dituenean. Momentu horretan, Freire Sao Paulo hiriko Hezkuntzako idazkari izendatuko dute, kargu horretan 1991ra arte egongo delarik.

1992-97 bitartean Unibertsitatera itzuliko da berriro eta "Doctor Honoris Causa" izendatuko dute. Bere konpromiso politiko eta sozialak urte horietako bere azken lanetan islatuko dira. Azkenik, 1997ko maiatzaren 2an bere bizitzako azken arnasa emango du.

### Teoriaren ardatz nagusiak

Freireren teoriaren ardatza eraldaketa eta aldaketa sozialetan oinarritzen da. Bere pedagogia ez da egokitzapenerako izango, eraldakuntzarako baizik, bere pentsamenduak muga ugari gaindituko dituelarik.

Autore honen pedagogian ezinbestekoa da bera bizi zeneko testuingurua kontuan hartzea, eta era berean, testuinguru horrekiko izan duen konpromiso politiko nahiz soziala. Hortik abiatuz, isiltasunean bizi diren kulturaz arduratzen hasiko da; **"Zapalduen Pedagogia"** garatuz apendizaiak dialogikoa praktikara eramango du, bitarteko bezala **ALFABETATZEA** erabiliko duelarik. "Zapalduen Pedagogia" hori heziketa popularraren bidez gauzatu da, populuari zuzendua baitago. Freirek popularekin lan handia egingo du eta batik bat, helduen alfabetatzean buru-belarri sartuta ibiliko da.

Freireren pentsamendua eta hezkuntza-ekintza *heziketa askatasunaren praktika* dela onartzetik abiatzen dira, "gizaki bukatugabea" dutelarik oina-

ri. Gizakiak bere testuingurua du eta bertan sozializatzeari gain, bera eraldatzen saiatu behar du. Freireren aburuz, gizakia bukatugabetasun "ontologikoa" oinarritzen da, hots, gizakiak berezkoa du. Gainera, gizakiok izaki garen neurrian, ikasten gaude eta etengabeko ikaskuntza horrek egiten du gizakia bukatugabe. Bukagabetasun horrek betieraldatzeko zerbait badagoela adierazten du. Modu horretan, ikastea eraikitzea, berreraikitzea, *aldatzeko konstatatzea* izango da. Horregatik, hezkuntza prozesua ezin da egokitzapen hutsera mugatu, bere hastapenetan eraldatzearen aldeak egon behar du, askatasunaren prozesu batean murgilduz.

Ildo horretatik jarraituz, ezin da esan hezkuntzako arazoa egiteko pedagogikoa soilik denik, egiteko politikoa ere bada. Eta, Freirek aipatzen duen bezala, zergatik da egiteko politikoa ere errealitatearen eraldaketa? Ez hain zuzen ere aberatsak geroz eta aberatsago izateko, baizik eta itzalpean aurkitzen diren kulturen egoera hobetzeko, eta maila berean, aldatzeko. Beraz, Freirek **"Autonomiaren Pedagogia"** deritzon lanean azalduko duen bezala, ezagutza kritikoa praxis politiko eta kultural horretan zentratua egongo da.

Autonomiaren pedagogia

Hezkuntza mailako eraldatze prozesu horretan murgiltzerako orduan,

lehenengo urratsa errealitatea ezagutzea izango da. Horretarako, Freirek *ezagutza kritikoa*, ezagutza askeagoa eta demokratikoagoa azpimarratuko du. Gizakiak bere munduaz kontzientzia izan behar du, bere kontzientzia ekintza-hausnarketak prozesuaren barnean egon behar duelarik, kontzientziazio horrek ahalbidetuko baitu errealitatearen eraldaketa.

Hezkuntzaren dialektika horrek praktika zehatz batzuk gainditzea eta berri batzuk bersortzea suposatzen du, hau da, irakaskuntza prozesu berri bat ezartzea, eta hori, autonomia pixkanaka barneratzen ari den erantzukizuneari oinarritzen da. "Autonomiaren Pedagogia" horrek hiru printzipio nagusi izango ditu: *"irakastea ez da ezagutzak transferitzea"*, *"ez dago irakaskuntzarik diszentiari gabe"* eta *"irakastea giza-berezitasun bat da"*.

Idea horiek guztiek enpiristen hezkuntza tradizionala hankaz gora jarriko dute. Orain arte, **hezkuntza bankario** edo tradizional horren arabera, irakaskuntza edukiak transferitze hutsean zetzan, subjektu-objektu erlazioa (irakasle-ikasle harremana) mantenduz. Irakaskuntza mota horretan, irakaslea formatzen duen hura izango da eta ikaslea formatua dena. Ondorioz, irakaskuntza bankari hori errealitatera egokitzeko soilik izango da.

Ikuspegi horren aurrean, Freirek **hezkuntza kritikoa** proposatuko du, teoria eta praktika maila berean egotea aldarrikatuko duelarik. Hezkuntza kritikoa hori ez da irakaskuntzaren transmititze soilen geratuko, eduki hutsetik harantzago joango da. Ideia hori Freireren baieztapen honek laburbiltzen du: *"Irakastea ez da ezagutza jakitea, baizik eta hura sortzeko edo eraikitzeko ahaltasunak sortzen jakitea"*. Beraz, *edukiak eraiki* egin behar dira, baina horretarako Hezkuntza Komunitate guztiak (irakasle, ikasle, guraso, ez dozentek) parte hartu behar du, hau da, edukiak *taldean* eraiki behar dira. Hezkuntza komunitate horretan, irakaslea bitartekoa da ekintza ku-






rikularren garapenean. Horrek irakasle-ikasle erlazioan harreman horizontala utziko du agerian. (subjektu-subjektu erlazioa). Horregatik, eraikitze prozesu hori garrantzizkoa da, *irakasle eta ikasleak elkarrekin ikasi, irakatsi, kezkatu, ekoiztu eta elkarrekin aurre egin behar baitie eragozpenei.*

Freirek eraikitze prozesu horretan aurrera eramango duen metodologia **metodo dialogikoa** izango da. "Dialogo" hau ez da eguneroko edota ohiko elkarriketa hutsetan gauzatu, baizik eta taldean buruturiko gogoeta-ekintza izango da. Horregatik dio Freirek ikasle eta irakasleen jarrera dialogikoa, irekia, jakinguratsua, ikertzailea eta aktiboa izan behar dela. Jarrera dialogiko horren berezitasuna hain zuzen ere, zorrotasun metodikoa izango da. Zorrotasun metodiko horrek, *edukiaren tratamendua luzatu eta kritikoki ikastea ahalbidetzen duten baldintzak ekoizten* ditu. Kritikotasun horrek jakin-min xalotik (zentzu ona, intuizioa) jakin-min epistemologikora (ezagutza) pasatzea posibilitatuko du. Horrek guztiak inplizituki *aldaketa, eraldaketa* dakar berarekin.

Azken finean, Freirek bere barnean eta bere teoria guztiaren azpian duen helburua hauxe izango da; errealitatearen **ERALDAKETA**, horretarako *"testuinguruaren irakurketa"* rekin kontzientziatuz.



### Freirereren teoriaren zabal-kundea

Freirereren teoria 1991n Sao Paulon sortutako "Instituto Paulo Freire" deritzon elkartearen aurkitzen dugun bere pentsamendua mundu guztiari agerian utzi nahiko diolarik. Instituto hori Freire berak beste autore batzuen (hasieran M. Gadotti eta J. E. Romao) laguntzaz sortutako inizatiba izango da. Bertan heziketa popularraren inguruan arituko dira eta helburu nagusia Freirereren ondareek jarraipena edukitzea izango da.

Erakunde hori zibila eta irabazi asmorik gabekoa da, zein pertsona eta instituzio internazionalak osatzen duten. Bere helburu zehatzak hauek izango dira: ikastaroak burutzea, Freirereren pentsamendua zabaltzea, heziketa, kultura, zientzia eta komunikaziorako programak egitea eta aholkularitzako kontsultak eskaintzea. Hala ere, helburu horiek dinamikoak izango dira.

Instituto horren sorrerak bi printzipio izango ditu; batetik, asmo berberaren inguruan interesaturiko pertsonak biltzea; eta bestetik, pertsona horiek beren hausnarketak sakontzea, beren praktikak hobetzea eta gizarte egokiarako sortzeko ahaleginak egiteko bilkura toki izatea.


Azken batean, institutu horretan hezkuntzaren inguruko hainbat hausnarketa eta lan burutu eta iradokituko dira, betiere askatasuna, justizia eta demokrazia bilatuz.

### Gure eguneroko praktikan bere eragina

Egun Paulo Freirereren pentsamenduen arrastoa leku askotan aurki dezakegu. Freirereren ekarpenek eragin handia izan dute. Badirudi itxuraz hasiera Freirereren pedagogia hirugarren mundura zuzendua dagoela, baina ez da horrela, lehenengo munduan ere zeresan handia izango baitu, esaterako Euskal Herrian.

Historiari so eginez, esan dezakegu euskal alfabetatze eta euskalduntze metodoetan eta horien inguruan sortutako pentsamenduan erabatekoa dela autore honek izan duen eragina. Datu aipagarri bezala 70eko hamarkadarako Freirereren ideiak plazaratuko dituen autore bat aurkitzen dugu, Eusebio Osa. "Pedagogia eta gizartea" lana argitaratu du, eta gainera, *euskaraz*, benetan datu bitxi eta azpimarragarria.

Helduen Hezkuntzan ere, Freirek hainbat aldiz jorratu duen arloan, oinarrian autorearen ideiak daude. Helduen Hezkuntzako zentro horietan erabiltzen diren irakaskuntza metodoak Freirereren pentsamenduez blaitzen dira.



Hezkuntza alorrean, Freireren isla diren esperientzia praktikoko batzuk ere baditugu. Horietako bat Ikaskuntza Komunitateko proiektua da. Proiektu hori EAEko zenbait ikastetxe publikoan gauzatuko da (Portugaleten, Pasaietan, Bilbon, Gasteizen, Lekeition eta Etxebarrin) eta berarekin lortu nahi dena komunitate bat osatuz lan egitea da.

Bestalde, Freireren teoria garbier zedarriritu duen proiektua Euskal Herriko sei ikastolatan gauzatzen ari den "Hezkuntza Komunitate Dialogikoak" deritzona dugu. Esperientzia horren helburua ikastetxeen errealitatea eta praktika aldatzea, eta era berean, hobetzea izango da.

Ikusten den bezala, oraindik ere, Freirek eragin handia du hezkuntzan. Beraz, Freireren ideiak ez dira berehalakoan hilko!



#### Bibliografía

##### Freireren lanak euskaraz:

- FREIRE, P. Irakurtzeko ekintzaren garrantzia elkar osatzen duten hiru idazkietan. UEU. 1990.

- FREIRE P. *Pedagogía da autonomia*. Cuadernos de Educación: Eusko Ikaskuntza, (9-71 orr). Donostia. 1999.

##### Freireren lanak gaztelaniaz:

- FREIRE P. *La educación como práctica de la libertad*. Siglo XXI. Madrid. 1969.

- FREIRE P. *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI. Madrid. 1970.

- FREIRE P. *Cartas a Guinea-Bissau*. Siglo XXI. Madrid. 1977.

- FREIRE P. *La importancia de leer y el proceso de liberación*. Siglo XXI. Madrid. 1984.

- FREIRE P. *Pedagogía de la esperanza*. Siglo XXI. Madrid. 1993.

- FREIRE P. *Cartas a Cristina*. Siglo XXI. Madrid. 1996.

- FREIRE P. *A la sombra de este árbol*. Editorial Roure. Barcelona. 1997.

- FREIRE P. *Pedagogía de la autonomía*. Siglo XXI. Madrid. 1997.

- FREIRE P., ILLICH I. eta FURTER P. *Educación para el cambio social*. Tierra Nueva. Buenos Aires. 1974.

- FREIRE P. eta GADOTTIM. *Pedagogía, diálogo y conflicto*. Cinco. Buenos Aires. 1987.

- FREIRE P. eta MACEDO D. *Alfabetización. Lectura de la palabra y lectura de la realidad*. Paidós/MEC. Barcelona. 1989.

- FREIRE P., GIROUX H. eta MACEDO D. *La naturaleza política de la educación*. MEC/Paidós. Barcelona. 1990.

##### P. Freireren lanak portugesez:

- FREIRE P. eta FAUNDEZ A. *Por uma pedagogía da pergunta*. Paze Terra. Rio de Janeiro. 1985.

- FREIRE P. eta SHOR I. *Medo e osadia: o cotidiano do professor*. Paz e Terra. Rio de Janeiro. 1987.

- FREIRE P., NOGUEIRA A. eta GERARD J. *Paulo Freire: trabalho, comentário, reflexao*. Petrópolis: Voces. 1990.

##### P. Freireri buruzko testuak:

- *Paulo Freireren ekarpenak*. (1999). Eusko Ikaskuntza. Donostia. (gaztelaniaz eta frantsesez ere badago).

- AUTORÍA COMPARTIDA. (1998). *Homenaje a Paulo Freire*. Cuadernos de Pedagogía, 265 (urtarrila), 41-79 orr.

- AUTORÍA COMPARTIDA. (1998). *Educación y transformación social*. Revista de Documentación social, 110 (urtarrila-martxo).

- GADOTTI, M. (Coord.). (1996). *Paulo Freire, Uma Bibliográfica*, Sao Paulo: Cortez Editora/ Unesco/ Instituto Paulo Freire.

- MONCLUS, A. (1988). *Pedagogía de la contradicción: Paulo Freire*. Anthropos. Barcelona.

- PALACIOS, J. (1979). *La cuestión escolar*. Laia, (519-556 orr.). Barcelona.

- *Pedagogías del siglo XX*. (2000). Cuadernos de Pedagogía. 25. urteurreneko ale berezia, 10. zenbakia.

##### HELBIDE INTERESGARRIAK:

- <http://w.w.w.paulofreire.org>.

- <http://canelones.chasque.apc.org/CEP/paulofre.htm>.

#### Akatsak zuzenduz

55. zenbakian atal honetan Ovide-Jean Decroly-ri buruzko lana argitaratu genuen. Egilea M<sup>a</sup> Ines Gabari zela ipini genuen, baina ez zen bera izan, M<sup>a</sup> Lourdes Aparicio baizik.

k rrik

